

Erroibar eta Esteribarko oikonimoak (II)

ORREAGA IBARRA*

0. SARRERA

Euskal Herrian, jakina denez, etxe bakoitzak bere izena izan du eta hau belaunaldi batetik bestera transmititu den gauza izan da, izen horrekin ezagutu zaielarik etxe horretatik pasatutako guztiei. Horrelako nortasuna izan du ezen eta askotan gaurko abizenek etxearen izenean dute beren jatorria. Pirineo inguruko bi ibar hauetan euskara heriotz bidean dago, arrazoi hau dela eta, etxearen izen anitz galbidean sartu dira, hain gordina izan baita euskararen galera azken mende honetan. Dena den, euskararen egoera kaxkarra den tokietan ere –egoera honetaz zehaztasun gehiagoz jabetzeko ikus Ibarra (2000)– toponimia eta oikonimia dira bizien gordetzen diren arrastoak, eta mundu guztiak ezagutzen eta erabiltzen dituenak.

Bestalde, etxe-izenetan ikertzeak, eta orobat, antroponiman arakatzeak, herri baten kulturaren inguruan datuak jasotzea suposatzen du eta, honek, era berean, gizarte horren historiaren inguruko bilakaera murgiltzeko parada ematen digu. Lalielak dioenez (1996: 146):

Es sabido que lejos de ser un dato insignificante o poco representativo, el uso que hacen los individuos de los modelos onomásticos, los cambios que introducen, las transgresiones o la fidelidad a ultranza que les otorgan, proporcionan una información sobre niveles muy profundos de los sistemas culturales de los que los usuarios pueden ser relativamente poco conscientes.

Ohar bedi, bidenabar, ez dugula nahasi behar hizkuntza antroponimiarekin, bakoitzak bide bat eramán duelako, eta askotan antroponimia moda edota eragin zehatzen ondorio izan da. Horrela, Euskal Herriko egungo izen gehienak euskaldunak dira Gorrotxategik (1993: 165) berriki frogatu duenez.

* Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Aitzitik, XVI. mendetik aurrera jaio berriei izen kristau batekin bataiatu behar zitzairen Trento Kontzilioaren (XVI. mendea) ondoren. Horregatik, antroponimian izen biblikoak agertzen dira, nahiz euskara zen nagusi inguru horietan. Honetaz gain, antroponimiaren bidez gizartearen eta familiaren ohi-turetan ikertzeko beta izanen dugu, eta, etxe-izenen bidez lanbideak ezagutzen ahal ditugu eta baita biztanle hauen estatus soziala ere.

Suposatzekoa denez, bildutako etxe-izen guztiek ez dute antzinatasun berbera, horregatik ikuspuntu diakronikoa izatea beharrezkoa egiten da, etimologia egitea zaila baita ikuspuntu diakronikorik kontuan harzen ez badugu. Herri hauetan, oikonimian ohikoa denez, etxea jabeaz aldatzen da eta beste izen batek ordezkatu du antzineko hura, horregatik toponimia oikonimia baino iraunkorragoa izan ohi da, etxearen jabearen arabera aldatzen ez delako.

Gaurko oikonimo askok *-nea*, *-ña* bukaera galdu dute, edota beste moduz desitxuratu dira. Alegia, *Migelito*, *Bentarra* etab. ahoskatzen dira *Migelitoña*, *Bentarraña* antzineko horien ordezkari. Horregatik, batzuetan parentesi artean egungo izendapena jarri dugu; besteetan aski dugu pentsatzea gaur egun batzuk azkeneko *-ña* gabe erabiltzen direla. Hainbatetan, ordea, atzizkia erabat loturik doa aurreko zatiarekin eta ez da inoiz bereizten, esaterako, *Marterena*, *Antorena*, *Mañuelaña* ahoskatzen dira beti, nahiz erdaraz mintzo garen.

1. JABEARI EDO ETXEAN BIZI DIRENEI ERREFERENTZIA EGITEN DIOTENAK:

1.1. Izen bereziak soilik

Lehenik esan behar da gaurko izendapen anitzek *-rena* bukaera galdu dutela eta izen bereziarekin soilik gelditu direla. Forma hauek erdararen nagusitzearen ondorioz sortu dira, herri hauetako erdaldunek ez baitakite gisa honetako esaldiak, adib. *Apesuiñen nago* edo *Apesuiñera noa* zer esan nahi duen. Hauen ordezkari, *estoy en casa de Apesui*, *voy a casa de Apesui* esaten dute. Bistan denez, hauek dira erdararen eraginaren bidez sorturiko formak, eta honenbestez, erdaraz *Casa Marco*, *Casa Zanzet* etab. agertzen dira. Hona batzuk, gaurko eran ahoskatuak: *Txantxo* (Erro), *Joantxe* (Erro), *Batit* (Biz), *Baldax* (Biz), *Martilonzo* (Mez), *Mamelantonio* (Esn), *Matxe* (Ai), *Paxkal* (Esn).

Gaur gelditzen diren euskaldun urriek, ordea, forma osotuak ahoskatzen dituzte eta hauen ordezkari, *Sotoña*, *Motxania*, *Apesuiña*, *Juanpedroña*, *Ferrandoña* eta antzekoak esaten dute. Hau dela eta, itxura-aldaketa handia izaten da bi izen hauen artean.

Bestaldetik, orokorrean hizkuntzaren ekonomia dela eta, laburtzeko joera nagusi izan da. Toponimian ere joera berbera dago bizirik, eta ez hemen bakarrik. Esaterako, Britainan egindako ikerketa batean Chedevillek (1992) erraten digu X. mendean badagoela “une désaffection pour les formes les plus longues: ainsi *Conomaglus* est-il remplacé par *Conmael*”.

1.2. Izen bereziak + *-rena*, *-ena*:

Sail hau da oparoena, etxe-izen gehienak egitura honekin osatzen direlako: *Adameneia* (Mez), *Adamerena* (Urd), *Agadena* (Ol), *Agaderena* (Mez), *Alonsonea* (Auz), *Amoxena* (Ard), *Anchorena* (Ler, Larra), *Andresena* (Zabal-

dika), *Androtenea* (Auz), *Anso* (Zil, Biz), *Ansorena* (Urtas, Ilur, Ilar), *Antone-
na* (Lin), *Antorena* (Mez), *Antorenea/Antton* (Auz), *Atanaxena* (Lin), *Beltra-
nena*, *Beltrarenea* (Auz), *Beltrania* (Us), *Beltrarena* (Aker, Biz, Eskir), *Benar-
terena* (Zuriain), *Beñardaña* (Mez), *Damerena* (1644), *Domingorena* (Ilur),
Enoko/Noko (Auz), *Eñaut* (Zil), *Erlotenia* (Lin), *Ernauteña* (Auz), *Fer-
nandonea* (Biz), *Fernandorena* (Ag), *Ferrandorena* (Iragi), *Garro* (Ai), *Gartxe-
nia* (Biz, Lera), *Gartxerena* (Set, Ler, Use, Bizk), *Gartxotena* (Mez), *Gartxote-
rena* (Gen), *Gilanzerena* (Urdai), *Iñorena/Niñorena* (Biz), *Jaimerena* (Zuriain),
Joainzenea (Auz), *Joane* (Ol), *Jose Migelenea* (Auz, Antxo), *Joseantonio* (Lin),
Juan Bernardorena (Auz), *Juan Manuelenea* (Auz), *Juan Simonenea* (Auz),
Juanarenea (Auz), *Juandraz* (Zil), *Juanenea* (Auz), *Juanfermiñena* (Mez), *Jua-
nisenena* (Irotz), *Juankoña* (Us), *Juanperitxena* (Zub), *Juanpilipeña* (Lin), *Juan-
terena* (Us), *Juantxe* (Erro), *Kristobalenea* (Auz), *Leorena* (Zuriain), *Loperena*
(Saig, Urd, Urtas, Eu), *Maitena* (Inbu), *Malezena* (Ilur), *Mamirena* (Aker),
Manezenea (Auz), *Mañuelaña* (Mez), *Mari Antoninenea* (Auz), *Maritx* (Esn),
Marterena (Mez, Saig), *Martilienea* (Ilur), *Martinenea* (Auz), *Martintxorena*
(Saras), *Martxantxena* (Lin), *Matxinena* (= Matxarena) (Ai), *Melchorena*
(Idoi), *Miguelena* (Antxo), *Migueltorena* (Urdaitz), *Milan* (Ai), *Milarena*
(Eu), *Mitxetena* (Ol), *Moxo* (Ard), *Nikolaxenia* (Lin), *Paskal* (Esn), *Paskuale-
na* (Mez), *Pasquelena* (Auz), *Paulorena* (Ilur), *Pedro Martinenea* (Auz), *Pe-
droizenea* (Auz), *Pedromarena* (Irotz), *Pedronea* (Auz), *Pedronekua* (Larra),
Pellorena (Zabal), *Perikonea* (Ler), *Perochena* (Biz), *Peruchorena* (Larra), *Pe-
rutxena* (Irotz), *Pettirrena*, *Petrirena* (Zabal), *Pierreño* (Larra), *Pitarrena* (Za-
bal), *Polorena* (Inbu), *Primonia* (Lin), *Sanhomara* (Ard), *Silto* (Ai), *Tristán*
(Ol), *Txalo* (Sai), *Txalotenea* (Eu), *Txantxo* (Biz, Ol, Zub), *Txomin* (Ilur),
Valentinena (Mez), *Xalbana* (Ard), *Xistorena* (Saig), *Xixilenia* (Mez).

–(R)ena atzizkia agertzen den sail honetan, aldaketa fonetikoak direla eta, gisa guztietako bukaerak sortzen dira: –rena, –enea, –nia, –ña, –ña. Ezin da esan bukaera bat herri batean ematen denik, eta gainerakoak besteetan, bai-
na, badira joerak. Mezkiritzen eta Lintzoainen, esaterako, –ña nagusitzen da, eta, aldiz, –enea duten bukaerak Aurizberrin agertzen dira soilik: *Ibañezenea*, *Buruzenea*, *Antorenea*, behintzat Barandiaranen (1926: 3) datuetan. Azkenik, –na da Ardaitzen erabiltzen den forma: *Pattana* (Apatereña), *Amoxena*. Nolanahi dela ere, gaurko Erroibarko gainerako etxe-izenak ezagutzeko ik. Ibarra (2000: 27).

Gibelera begiratzen badugu, 1644. urteko eta XVII. mendeko dokumen-
tuetan –rena, –ena ditugu gehien bat; forma garatuagoak, alegia, –aiña, –ña etab. beranduago agertuko zaizkigu. Arestian genioenez, oikonimo anitzetan –nea forma agertzen da; bukaera hau sortu da kasu lokatiboaren deklinabi-
dearengatik, eta gero, zatiketa oker batengatik sortu dira forma hauek. Hor-
rela, jarraitutako bilakabidea hauxe izan da: *Mikeltorena* > *Mikeltorenea(n)* > *Mikeltonea*.

Itxura guztien arabera, –rena duten oikonimoak berri xamarrak dira. Hor-
rela, Orpustanek dioenez (1990: 134), Iparraldeko herrietan Erdi Aro guz-
tian ez dago –rena duen toponimorik, *Apararena* oikonimoa da bakarra, Les-
pars herrian agertzen dena.

Baina, –rena atzizkia ez zaie pertsona-izenei soilik eransten, kokapena
adierazten duten etxe-izenek ere –rena eraman ditzateke: *Artaizena* (1726
Ol), *Dorrorena*, *Zarecorena*, *Plazarena* (Ai), *Erdikonia* (Biz), *Txokorena*

(Errea), *Arrietarena* (Erro), *Usechirena* (Inb). Kasu urri batzuetan *-ko* erans-ten da *-rena* atzizkiaren ondoren, gehienetan antroponimoekin baina baita leku-izenekin ere: *Michelenecoa* (Irag), *Ganchinenecoa* (Ler) eta *Erroinecoa* (Ol.1726).

Izen berezi hauetako anitzek ez dute azalpenik behar oso argiak direlako. Zerrenda honetan, ordea, ikus ditzakegu azalpenen bat merezi duten beste batzuk. Horrela ikus ditzakegu zein antroponimo erabiltzen ziren lehenago, eta zein gaur. Bistan denez, aldaketa handi xamarra izan da urte hauetan zehar:

Adamerena (Mez). *Adan* izen berezia *Adam*, *Adame* izan da euskaraz. *Adamerena* izen berezi horretatik eratorritako oikonimoa da; *Adanarena* etxe-izena ere daukagu Larrasoñan eta *Adamerena* Urdaitzen, gaur *Amerena* ahoskatua. *Adame de Villanueva* da Urdaitzeko *Mearirena* etxeko jabea ere.

Agadena, Agedena (Ol). *Agueda* izen berezitik eratorria, *Aguedarena* formak erakusten duenez.

Andrarena (Esn), *Andre* da *Andresen* aldaera, grekerako *Andres*-tik eratorria, 1726. urtean besterik ez da agertzen, baina *Andrea*-tik eratorria ere izan daiteke.

Androtenia da gaurko Aurizberriko etxe-izena. Hiru mende lehenago (*Andrebaterena* 1644) eta (*Androbetena* 1677) agertzen dira idatzirik. Hauetaz gain, *Androbetena* dugu Sarasibarren. Gure ustez, *Andre Bita*-ren bilakae-rak dirateke hauek; Leiren dokumentatzen da antroponimo hau eta *Andre* eta *Bitaz* osaturiko izen berezia da.

Arabe (Mez) *Araue* jentilizioan oinaturriko antroponimoa, ziurrenik, *Miguel Araue* da. 1366. Lizarran eta Larraunen ere 1766. urtean *Arabe* agertzen da idatzirik (ik. Irigoyen 1994: 194). Mezkirizko etxe honen izenak bigarren *a*-n du azentua, eta 1882. urtean agertzen da dokumentaturik eta urte hauetan izen hau ez da agertzen.

Ansorena (Zil). Jakina denez (ik. Irigoyen 1994: 254), *Sanso*, *Sainso* eta *Anso* formak XIV. mendetik aurrera dokumentatzen dira. Hartaz, *Anso* da *Sansoren* aldaera.

Antorena dugu Mezkiritzen, Aurizberrin *Antorenea*, *Antton*= *Kaxton* biltzen du Barandiaranek, eta Lintzoainen ere *Antonena* dugu. Azpimarratzekoa da, honenbestez, *Kaxton* dela *Anton*en aldaera bat.

Antxandoi (Auz). *Echarandoy* dugu 1726. urtean eta *Antxarandoyena* agertzen da 1744. urtean¹. Antroponimoa da, eta deitura seguraski.

Antxorena (Ler, Larra). *Anton*en edo *Santxorenaren* aldaki txipitzailea dugu hau.

Atanaxena (Lin). *Atanasia* izen berezitik datorren forma bustia da hau.

Balança (Ag, Larra): Mitxelenak dioenez, *balan*– *balen*– erroa daukatenak izen bereziak dira, edo pertsona izenak edo toki-izenak, baina “balantza” kalifikatzailea ere badago. Jimeno Juriok dioenez, Larrasoñako *Balanza* etxean ospatu ziren Nafarroako Lehen Gorteak.

¹ Patxi Salaberri zor diot informazio hau, bihoaz hemendik nire eskerrak. Era berean, Larrasoñako Esperi eta Erroibarko nahiz Esteribarko hainbat informatzailei ezkeru nahi diet emandako laguntza.

- Baldax** (Biz). Oikonimo hau *Baldar*-etik datorke? *Baldax*, Azkueren arabera, Gipuzkoan da “colgajo, cosa despreciable, persona desaliñada y mezquina”. Aurreko urteetan *Balaxena* eta *Baldechena* formak agertzen dira dokumentaturik.
- Beltranena**, *Beltrania* eta antzekoak erruz agertzen dira Usetxin, Larrasoañan eta Erroibarren. Honenbestez, *Beltran* izena ohikoa izan da urte batzuetatik hona.
- Benarterena** (Zur), *Bernarttena* XVII. mendean. *Bernard*, *Bernardo* izen berezitik eratorria.
- Chancorena** 1677. urtean dokumentatzen da Zubirin. Izen hau *Xanco*, *Xoancoren* txikigarria dateke, eta hau, *Juan* izenetik eratorritako forma hipokoristikoa da. Bidegainen arabera, *Sango* da *Santiren* aldaera 1153.an Nafarroan dokumentatua (ik. Bidegain 1999: 377).
- Damerena** (Akerreta 1644. urtea) *Damian* antroponimotik eratorria, III. mendeko santua, San Kosmeren anaia.
- Dominxena** eta *Domichena* etxe-izenak ditugu Sarasibarren. *Dominixe Domikuren* aldaera da Lapurdin eta Nafarroa Beherean izen herrikoi hau dugu.
- Doñarena** agertzen zaigu 1726. urtean Gurbizarren. Jakina denez, *Dona*, jatorriz izen erromanikoa da 1350.ean dokumentatzen da. Ñ hori bustiduraren ondorioa dateke.
- Enecotena** (Ilar), *Enecot* da *Enekoren* aldakia 1366. urtean Biotzarin dokumentatzen dena. *Enecorena* ere dokumentatzen da Gendulainen.
- Erlotenia** (Lin) *Bertol* forma testigatzen du Irigoienek; baina, hau baino ziurrago da *Ernaut* izen berezitik eratorzea. *Ernautena* agertzen baita 1644. urteetik aurrera dokumentaturik, eta *ln* txandaketaren bidez aise azal daiteke.
- Gantxinenekoa, Garchirenekoa?** (Ler 1677) **Garcherena** (XX. mendea, Set) Oikonimo hau *Garcet*, *Garcia*, *Gachia*, *Garcio*, *Gartea* izenaren ondorengoa da, nahiz 1677-ko dokumentuetan zaila den ikustea *n* bat den edo *r* bat, baina hau da orain arte mantendu den oikonimoa eta etxe berberari egiten diotela erreferentzia uste dugu.
- Garrorena** (Ai, Saig), *Garro* da *Garroten* aldaera 1430ean Bizkaian dokumentatua. *Garrete* eta *Garro* 1350.ean agertzen dira dokumentaturik Carcarren. *Engarran de Billiers, governador de Navarra* dugu 1312. urtean, Doc. Artajoneses (ik. Irigoyen 1994: 272).
- Gartxotena** (Mez), *Garchot* forma XIV. mendean dokumentatzen da Aurizberrin, XII. menderako *Garcheot* agertzen da, *Gartxot* hau *Garzia*-ren txipitzailea dugu. Oikonimo hau agertzen zaigu Errean 1677. urtean, Mezkititzen XX. mendean eta, orokorrean, Nafarroan nahiko ohikoa da.
- Gardochena** dugu Setoainen 1644. urtean, *Gardotza* da Berriatuko toki-izena, baina, ez dirudi hemendik datorkeenik.
- Gartxenia** (Biz, Lera), *Gartxerena* (Set, Ler, Use, Bizk), forma hau *Garcheot*, *Gartxet*-en eratorria da, eta hau, azken finean, *Garcia*-ren aldakia da. –*Ete*, –*eta*. –*et* atzizkiak ohikoak dira Pirineo ingurune guztian, adib. *Barraquet* (Ansó, Hecho). Hona Euskal Izendegian (Gorrotxategi & Salaberri 2000:120) agertzen dena: “*Gartxea* Erdi Aroko euskal izena da (Garçea), beranduago deituratzat finkatu dena. Irudi duenez, egungo *gazte* adjetiboaren jatorrizko forma izen honetan dugun bera da. Aldaerak: *Gartze*, *Gartzia*, *Gartzi eta Gastea*”.

- Gilto**, *Giltorena* etxea dugu 1644. urtean dokumentaturik, eta egun *Xilto* esaten zaio Aintzioako etxe honi. *Gil* izen berezia grekeratik dator, *Gil* grekoz “aegidos” (geriza, babes) da, Nimesen VII. mendeko saildu baten izena da eta Orreagan dokumentatzen da 1366. urtean. Aezkoako Hiriberrin ere *Xilko* etxea dugu (ik. Camino 1997: 103).
- Goncalerena** (Inbu 1644, 1677). *Gonzalo* izen berezitik eratorriko forma da hau.
- Iñorena/ Niñorena** (Biz). Oikonimo hau *Iñigo*-ren desitxuraketa da, *Iñigorena* > *Niñorena*, gure amatxiri behin baino gehiagotan entzun diogu horrela izendatzen zitzaioela etxe honi. Oikonimo hau ez da lehenago gure dokumentuetan agertzen, harrigarria da oso etxalde zaharra eta handia delako, ziurraski lehenago beste izen batekin ezagutzen zitzaion.
- Jaquerena** dugu Setoainen 1644. urtean, *Jakesen* aldaera. *Jakes* da *Jakoben* aldaera, 1350ean jadanik Arronizen dokumentatua.
- Juandraz** (Zil) < *Juan de Errazurena* formaren apokopeaz eratorrikoa. Zilbertin *Juan de Errazurena* agertzen baita dokumentaturik 1726. urtean.
- Juanistorena** (Inbu) agertzen da 1677. urtean. Bistan denez, *Juanes*, *Juanix* + *-to* txikigarriaz osatua da oikonimo hau.
- Juankoñia** (Lera, Use). *Juan* + *-ko* txikigarriaren eratorria da.
- Juanpericena** (Zub. 1644) *Peritz* da *Petiren* aldaera Zaraitzun 1249. urtean dokumentatua.
- Juanpilipeña** (Lin). *Juan-Felipe* izen berezitik datorren forma da hau. *F* konsonantea *p* bihurtu delarik, euskarazko fonetikak erakusten duenez.
- Juanportalena** dugu Zuriainen, gero 1677. urtean *Ju. portalenas* agertzen da idatzirik. Vive en ella *Ju. Portal de Jesus* su dueño. Honenbestez, *Portal* horren etorkia badakigu zein den.
- Juantxe** (Erro). *Juan* forma + *-txe* atzizki hipokoristikoa duena (Ik. Irigoien 1994: 275). *Juanterena* (Usetxi) ere honen aldakia da, nahiz *Juanotena* bezala agertzen den XVII. mendean, alegia, *-ot* atzizki txikigarriarekin. Bestaldetik badugu *Garcia Juanche* dokumentatua (1235. urtean. Doc. Artajoneses).
- Juanix** izenaren eratorrikoak badira, hala nola: *Joainzenea* (Auz), *Juanisena* (Irotz) eta *Juanistorena* Inbuluzketan eta *Ganchinenecoa* Leranotzen. Hauek guztiak *Juanes*, *Juan* antroponimoaren aldakiak dira.
- Jurrarena** (Biz. 1644). Gure ustez, *Jurdan*-en desitxuraketatik eratorria, *Jurdan* izen berezia 1330.ean dokumentatzen da Miranda de Argan, eta gero, *Jurdana* ere XIII. eta XIV. mendeetan erruz agertzen da Orreagan, Mallerrekan eta Allin. *Jurdana* ginekonimo moduan XVI. eta XVII. mendean testigatzen da. Mitxelenak ere *Jurdana* erakusten du 1350. urtean, *Jordan* ibai entzutetsutik ekarritako urez bataiatutakoei jartzen zitzaizen, dirudienez. Cf. 1612an Izaban agertzen den *Xurt deit* eta *Montejurra* toponimoa ere.
- Laurentxi** (Lin) toponimoa eta ibarreko etxea Lintzoain ondoko eremuari dagokio, *Laurenti* formatik datorke, eta hau *Laurendi* antroponimotik etor daiteke; seguraski latinezko genitibotik eratorria da, *Bettiri*, *Pettiri* bezala.
- Leorena** (Eu) eta *Leonena* Zuriainen agertzen dira. Argi dago *Leon* edo *Leo* honen aldakia den izen berezia dagoela hor atzean.

- Loperena** (Eu, Inbul). *Loperena* forma da latinezko *Lupus*-en txikigarria XII. mendetik aurrera agertzen dena.
- Lusiarena** (Biz), *Luçia* Nafarroan agertzen da 1330. urtean Mirandan eta Carcarren.
- Maitena** euskarazko izen berezia da, etxe-izen hau Inbuluzketan agertzen da XX. mendean, *Marichantena* (1644) eta *Marchanterena* (1677) ditugu aurretik, baina zaila da gaurko *Maitena* etxea hauetatik eratorzea.
- Maiticherena** dugu Sarasibarren XVII. mendean. *Maitexa*, *Maitesaren* txikigarria da, eta Villatuertan dokumentatzen da 1366. urtean.
- Malezena** (Ilur). *Malea* emakume izen berezia agertzen da 1262. urtean Nafarroako Murchanten dokumentatua (ik. Irigoyen 1994: 276): “Dona Malea de Murchant”. Honen aldaki txikigarria da ziurrenik antroponimo hau. *Po. Malena* etxe-izena ere badago Irozen, gero *Pedromarena* bilakatu dena.
Bestaldetik, baliteke *Manezen* disimilazioa izatea. Baina, arraroa da dokumentu zaharretan ere *Malaxena* agertzen baita dokumentaturik.
- Mamirena** (1644 Aker) eta *Nañirena* (1677) etxe-izena dugu Akerretan. Itxura guztien arabera, *Mami* jatorri iluneko izenetik eratorria da, batzuen ustez grekoko *mammé* ‘ama’ hitzetik datorkeena. Herri-etimologia dela medio latinezko *mamma* ‘titia’ hitzarekin lotu zen, eta gero inudeen zaindari bihurtu. *Santi Mami* III. mendeko santua da, Kapadoziakoa, eta Euskal herrian *Santimamiñe* izeneko haitzulo ezaguna da (ik. Salaberri & Gorrotxategi 2000).
- Marichanterena** agertzen zaigu Inbuluzketan 1644. urtean eta urte batzuk geroago, *Marchanterena*. Gure ustez, *Mari Xoan* izen konposatuaren aldaki sinkopatua da.
- Marchorena** dokumentatzen da Sarasibarren. *Martxo* izen berezitik eratorritako forma dateke hau, eta *Marzo* latinez gerrako jainkoaren izena da, 1366. urtean Falcesen dokumentatzen dena.
- Martxantxeña** (Lin). Bada *Marti-Santz* izeneko antroponimo bat 1465ean dokumentatua Baionan; *Martinen* ttipitzailea ematen du lehenengoa, bigarrena *Sanz*, *Santxoren* aldakia da. Bestaldetik, aurreko lerrootan aipatu dugunez, *Marchanterenaren* aldakia ere dateke.
- Manezenea** (Auz), *Manez* izen berezitik datorren forma dugu hau, eta hau, jakina denez, *Joanes*-en aldakia da.
- Mañuelaña** (Mez), *Manuela* izen berezitik dator, sudurkariaren bustiduraren bidez.
- Martilozzo** (Mez) < *Martin Lorenzo*-ren sinkopa da argiki.
- Matxe** (Ai, Auz). Gure ustez oikonimo hau *Martinen* aldaera ttipitzailea da, *Machinena* agertzen delako 1644. urtean Aintzioan. Entzuna dudanez, Aintzioako bat ezkondu zen Aurizberrira eta eman zion izena Aurizberriko etxe honi.
- Melchorena**, **Malchorena** (1677. urtean) Idoien dokumentatzen da; dirudieenez *Meltxor* hebraierako errege baten izena dugu oinarrian.
- Menautena** (Irure) *Menaut* izen berezia 1329.ean dokumentatzen da Iparraldean, eta 1366.ean Irunberrin.
- Migueltoarena** (Urda). *Miguel* izen berezitik datorren forma da hau *-to* txikigarria duena.

- Milanena** etxe-izena dugu Aintzioan eta *Milarena* Eugin. *Millan* da *Miliaren* aldaki ttipitzailea, eta *Milia* Mendavian dokumentatzen da 1330. urtean latineko *Aemilianus* izenetik eratorria da.
- Montain** (Auz) du izena Aurizberriko etxe honek, *Montañarena* edo *Montañaren borda* agertzen da dokumentuetan. Honenbestez, erdal *montaña* + *-rena* atzizkia dugu oinarrian, antzekoak badaude lan honetan, alegia izena gaztelaniaz eta *-rena* atzizkia, adib. *Amigorena*, *Amorena*, *Bascorena*, *Casarena* etab.
- Mozorena** (Urdaitz). *Moso* izen eta abizena da, *Pello Moxoina*. *Moxo de Gracia* XIV. mendetik dokumentatzen da (ik. Irigoien 1994: 238). Bestalde, erdal “mozo”-tik datorke hau. Izen honen aldaki ugari aurkitu dugu: *Mocárena* (Ard), *Moçarena* (Auz), gaur *Mosena* edo *Amosena* esaten zaio Ardaizko etxe honi, eta Esnotzen ere *Moçarena* dugu 1644. urtean.
- Muniena** (Zur) 1677. urtean eta, *Mumuenta* 1644.ean. *Monio* izenetik eratorria dateke etxe-izen hau, 1451.ean dokumentatzen dira Senperren.
- Noko** (Auz) etxea esaten bada ere gaur, behiala *Enoko* zen, eta hau *Enekoren* desitxuraketa da, Aurizberri (1444 eta 1726. urteetan, *Enecorena* agertzen baita. Gaur *Noko* izenarekin ezagutzen zaio Aurizberriko etxe honi. Mezkitritzen *Martin Enequy* dugu 1350. urtean (ik. Irigoien 1994: 210). *Enecotena* ere agertzen da Ilarrazen dokumentaturik.
- Ochandarena** 1644. urtean, gaur *Otsandorena* bihurtu da Sarasibarren. *Otsanda* da *Otsoatik* eratorritako forma Ororbian dokumentatzen da 1248. urtean.
- Orcharena** (Erro) *Orcha* izen berezitik eratorritako forma ematen du. Izen hau antroponimoa da, *Orcha* baita Orzaizeko auzo baten izena. Baina, kasu honetan *Orocharena* dugu 1644. urtean eta *Orcharena* 1677.ean eta *Orotx* gaur, bistan denez antroponimoa *Orotx* da, goititzen bat edo deitura?, oinarria **oro* duena, jatorri iluneko.
- Pastorra** oikonimoa dugu Gerendiainen. Irigoienek dioskunez (1994: 20), “Eleizalde-renean erdarazko *Pastor* euskaraz ere *Pastor* moduan agertzen da”. Ohar bedi, nola hitz bukaeran *r* hori anitza bihurtzen den.
- Paxkal** (Esn), *Paskoalen* aldaera, Iruñean dokumentatua 1366. urtean eta hemen *Pascualena* (1644) eta *Pascalena* (1672).
- Polorena** (Inbu), 1677. urtean *Paulerena* bezala agertzen da, *Paulorena* ere dugu Ilurdotzen, *Paulo* > *Polo* izenetik eratorria. Izan ere, Irigoienek (1994: 106) dioenez, XIV. mendetik aurrera hasten da *Paulo* forma dokumentatzen Tafallan, Lizarran eta Larragan.
- Pattin** (Biz, Mez) etxe-izena izan da Bizkarreten eta Mezkitritzen ere, nahiz ez den dokumentaturik agertzen, gaur egun antroponimo moduan bizirik dago eta *Apattin* ahoskatua ere entzun dugu. *Martin*-en aldaera hipokoristikoa da. Izen berezi honek aldaera pila dauka: *Marti*, *Martico*, *Machite*, *Machin*, *Machicote*. *M-/P-* hasierakoen arteko txandaketa ez da harri-garria.
- Perikorena** (Setoain) *Peru*, *Pedro* antroponimoaren aldaera txikigarria da, *Pedrocorena*-rekin txandakatzen da 1644. urtean.
- Perkain** (Auz) *Percañena* dugu 1644. urtean eta *De Percain* 1726.ean, *Perkain* izen edo abizen berezia da.
- Perutxena** (Irotz). *Peru* forma *Pedro*-ren aldaki ugari horietakoa da. Jakina denez, *Peio*, *Pello*, *Per*, *Peruski*, *Perutxo*, *Perotxe*, *Petri*, *Bettiri*, *Petiri*, *Peri-*

ko izenak dira *Pedroren* aldakiak. Eremu honetan izen honen aldaki ugari daude, txikigarriak eta arruntak ere: *Pedro Martinenea* (Auz), *Pedroizenea* (Auz), *Pedromarena* (Irotz), *Pedronea* (Auz), *Pedronekua* (Larra), *Pellorena* (Zabal), *Perikonea* (Ler), *Perochena* (Biz), *Peruchorena* (Larra), *Perutxena* (Irotz), *Pettirrena*, *Petrirena* (Zabal), *Pierreño* (Larra), Gorrotxategiren (1993: 320) artikulu batean antroponimo hauen banaketa aztertzen zuen XVIII. mendean. Lan honetan aldaera hauek agertzen ziren gure ibarretan: *Pedromanecoa* (Irotz), *Pedrorena* (Gend) eta *Peruchena* (Larra). Baina urteak pasa ahala, izen honen aldaki gehienak agertuko dira. Irotzen, esaterako, *Pedromarena* eta *Perutxena* oikonimoak ditugu. *Petrirena* hau gero *Pitarrena* bihurtuko da Zabaldikan, eta *Perutxena* horri *Pierreño* deitzen zaio gaur Larrasoañan, *-ño* atzizkia, *Pierre* izen frantsesari erantsia.

Pierren borda dago Zilbetin. Bistan denez, muga ondoko herrietan izen berezi hauek itxura frantsesua erakusten dute.

Pitarrena (Zabal) Izen hau *Pettirrena* eta *Petrirenaren* desitxuraketa da.

Ponfox oikonimoa bildu dugu Osteritzen. Horrela agertu zaigu idatzirik azken Catastroan. Izan daiteke okerren bat edo litekeena da *Ponz* eta *Pons* edo *Ponzonen* desitxuraketa izatea. Izan ere *Ponz*, eta *Ponçon* eta *Pero Ponz* eta antzekoak XI. mendetik aurrera agertzen dira dokumentaturik (ik. Irigoien 1994: 246).

Posanz (Eskirotz) da gaur egungo forma eta *Pero Sancena* agertzen da 1644. eta 1677. urteetan dokumentaturik. Hasierako *Pero* hori *Peruren* aldakia da eta honenbestez, *Pero Sancena* > *Posanz* bilakabidea gertatu zen.

Primorena (Lin) edo *Primonia* dugu Lintzoainen, latinezko *Primus* (lehena) izen berezitik eratorritako forma, *Primo* pertsona izena da (ik. Irigoien 1994: 170).

Puxantena, agertzen da Osterizen 1644. urtean, gero *Pujantena* 1677.ean. *Pero Santerena* edo *Pero Jaunterenaren* desitxuraketa? Bestalde, *Pujana* abizenak etorki latina du Mitxelenak dioenez. “-ana” bukaerakoek adierazten dute “lugar donde existieron villas más importantes, como construcción, es decir, urbanas”.

Remallorena (Zub). Ez da aurretik dokumentaturik agertzen, baina jabeek diotenez, Romualdo izeneko jabea bizi izan zen.

Reminena (Sar. 1644) eta *Erremonena* (Sar. 1677) izen bereziak dira. Litekeena da *Remi* izen berezitik eratortzea hau, aldi berean, *Remigioren* aldaera izatea.

Sanduarena (Larra 1677). Argi dago honen esanahia. *Sanduru* izena 1366.ean dokumentatzen da Larraintzarren, latinezko “omnium sanctorum”-etik eratua. Gainera, izendapen hau etxe-izenen osagaia da Iñigok eta Salaberrik diotenez (1994: 1421).

Sanquinttinenena agertzen da Urdaitzen 1644. urtean. *Sanquitenena* agertzen da idatzirik 1677. urtean. San Quintin-etik eratorria?

Tristantena (Ol) oikonimo hau *Tristant* antroponimotik eratorria da, *Tristan* da Erdi Aroko eleberri baten izena.

Txalotenea dugu Eugin eta *Txalo* Saigotsen, *Charlot* antroponimotik eratorriak ziurrenik. Saigotsen 1644. urtean dokumentatzen da, *Charlotena* agertzen baita idatzirik. Gaur egun Eugin *Txalotenea* izenarekin ezagu-

- tzen zaio eta Saigotsen *Txalo* bilakatu da. *Txarles* eta *Txarlot* izenak oso zabalduak izan dira Nafarroan
- Txantxilikorena** (Antxor) Antxorizen *Sanchotrere*na dugu 1644. urtean, gero *Sancho Sicorena* 1677. urtean eta azkenik, *Txantxilikorena*.
- Txomin** (Ilurd). Izen berezi hau, jakina denez, *Domikuren* euskal aldaera da. Izen hau hipokoristikoa da, eta forma arrunta, alegia, *Domingorena* ere agertzen da Ilurdozen XX. mendean.
- Xistorena** (Saig). *Sixto* izen bereziaren hipokoristikoa ematen du. Baina Saigotsen *Cestaurena* 1644. urtean eta *Çestaunena* 1677.ean agertzen dira dokumentaturik, eta gaur, *Xistorena*.
- Xixilenia / Zizilenia** (Mez). 1330. urtetik aurrera agertzen diren izen bereziak *Sizilia* eta *Sezilia* dira. Irigoienek (1994: 260) zalantzak ditu *Zezenia* eta hauek izen berezia berbera ote diren. Mezkiritzen oikonimo hau hortik datorrela ematen du.
- Xiota** esaten zaio gaur Akerretako etxe honi, *Chotarena* zen 1677. urtean. *Sota*, *Sotoren* femeninoa dateke, gero bustidura atxiki duena? Loizun ere *Xoto* etxe-izena dugu. *Sotera* izen berezia ere bada, *Sotoren* femeninoa. Bestaldetik *Xotro* izena ere bada gaur Olondrizen, hau ere *Sotoren* desitxuraketa dateke, kontsonante bat tartekatu zaionari, *Gilontto* > *Gilontro* bezala.
- Urrarera** dugu Akerretan 1677. urtean, nahiz 1644. urteko izena: *Urare?* iluna den, baliteke *Urrana* izen berezia, Erdi Aroko euskal izena, egotea azpian. 1035ean Elorrioko San Agustin monasterioaren emate-agirian azaltzen da.
- Zuria** (Mez). Mezkirizko hau etxe zaharrena da eta biziki handia. *Zuria* izena 1350. urtean dokumentatzen da Narkuen eta Iruñean, era berean *Dona Çuria* dugu 1366an Galipentzun. Mezkiritzen *Curiarena* (1644), *Zurianequa* (1677) eta gaur *Zuria* edo *Zurienea* esaten zaio. Era berean Ardaitzen *Çuriarena* (1644) *Zurianecoa* (1677) eta gaur *Zuriona* esaten zaio. Hartaz, antroponimo honetan oinarritutako etxe-izena ematen du.

1.3. Deiturak

Sail honetan aipaturiko batzuk *-rena / -ena-z* lagundurik joaten dira, beste batzuk, ordea atzizki hau gabe ahoskatzen dira. Deiturak direla diogunean adierazi nahi dugu abizenak direla; nahiz, jakina denez, hasieran hauetako batzuk toponimoetatik eratorriak diren, hala nola *Irigoien*, *Mendizabal*, *Urrutia*, *Urbeltz* etab. Hona batzuk:

Azkarate (Eu), *Balança* (Agor, Larra), *Bixkai* (Ai), *Buruzenea* (Auz), *Etxamendi* (Biz), *Etxauz* (Erro), *Garciaarena* (Lera), *Garrorena* (Eu), *Gartxerena* (Lera, Us, Bizk), *Gurbindo* (Lera), *Ibañezenea* (Auz), *Irabarren* (Esn), *Irigoien* (Esn), *Irisarrienea* (Auz), *Kolixena* (Mez), *Lasarena* (Gurbizar), *Lix* (Erro), *Lusar* (Ai), *Martiazena* (Auz), *Mendizabal* (Eu), *Montañarenal/Mountain* (Auz), *Senper* (Erro), *Urbeltz* (Lin), *Urrutia* (Zabaldika).

Etxauz (Erro). Baigorriko Beltran D'Etxauzekin erlazionatua dago abizen hau seguraski; *Etxausko Jauregia* dugu Baigorri eta abizen hau erabat hedatu da. *Echaoz* edo *Echauz* da Behenafarroako etxe zaharra, 1350 urtetik aurrera agertzen dena dokumentaturik.

- Etxamendi** (Biz). Abizena da, eta XX. mendean agertzen da oikonimo hau, jatorriz toponimo argia den arren.
- Garziarena** (Biz) agertzen da 1736. urtean dokumentaturik eta *Gartxerena* XX. mendean.
- Gintorena** (Esn) 1644. urtean agertzen da, baina, gero ez da berriz ere agertzen, *-to* atzizki txikigarria du.
- Kolix, Kolixenia** (Mez) etxea *Jolis* abizenetik etor daiteke, nahiz azken berreun urteotan ez dugun abizen hori aurkitu. Belarea baztertzen da, eta honen ordeztan $j > k$ bilakabidea suertatzen da, *ijito > kito* bezala. Orbaizetan eta Abaurregainan ere *Xolix* dugu, belarearen aldaera igurzkariarekin.
- Lasarena** (Gur). *Lasa* abizenetik eratorritako forma, eta hau *lats* formatik eratorria da 'errekatoa'.
- Martiazena** (Auz) Etxe-izen honek *Martitz* izenarekin du antzekotasuna, latineko *Mars, Martis* gerraren jainkoaren izenetik sortua dena.
- Ochoarena** (Ilurd), *Ochoarena* agertzen zaigu 1644 eta 1677. urteetan. Jakina denez, *Otxoa* euskarazko hitza da. XII. mendetik aurrera erruz dokumentatzen den abizen euskalduna da, latinezko *Lupus*-en korrelatoa. *Otxoa* izen berezia agertzen da 1150ean Donazaharren eta gerora Orzaizen, eta XIV. mendean Urepelen.

Hauetako batzuk euskal abizen garbi-garbiak dira eta hauen inguruko etimologiak egitea ez dagokigu orain, hona hemen: *Aspiltze, Etxamendi, Bixkai, Buruz, Gurbindo, Irabarren, Irigoien, Irisarri, Luser, Mendizabal, Orotz, Urbeltz* eta *Urrutia* abizenak dira.

1.4. Goitizenak

Goitizen hauek aztertzeak bidea ematen digu antroponimiaren sistema ulertzeko, eta baita izen eta izengoitiaren artean dagoen erlazioa ulertzeko ere.

Ezer baino lehen esan behar da izengoitien jatorria nahiko korapilotsua dela eta modu askotan atera daitezkeela hauek.

Askotan ezaugarri fisiko bati egiten diote erreferentzia: *Txurdo, Luze, Ezkerra, Motxa, Andia, Makurra*. Baita larru koloreari ere: *Buruzuri, Burutxiki, Beltza...* Erdaraz ere *Rubio, Royo, Calvo* abizenak izengoitietan oinarrituak dira. Beste kasu batzuetan pertsonaren akatsak edo kualitateak nabarmentzen dira edo beste edozein ezaugarri azpimarratu nahi da, eta gure ustez izengoiti bihurtu dira jakin gabe zehazki nola hasi zen izen hori hedatzen, esaterako hurrengo hauek ditugu: *Rebex, Xolda, Traporena*. Beste batzuetan badakigu izengoitiaren jatorria, *Mantta, Moña, Kixkil* kasuetan bezala, eta horregatik diogu beti harrigarriak izaten direla.

Hauetako ere *-rena* atzizkia eransten zaie, aurrean aztertutako izenei eta abizenei bezala.

Andiarena (Idoi), *Arabe* (Mez), *Beltxa* (Saigots eta Sorogain), *Beretx* (Auz), *Burtzikina* (Lin), *Buruzuri* (Mez), *El Curro* (Biz), *Exkerrena* (Ol), *Galtxarena* (Urtasun), *Iketza* (Eugi), *Kaxenia* (Lin), *Lutxerena* (Urtasun), *Makurra* (Irotz), *Makurranekea* (Iruere), *Mantta* (Erro), *Moñana* (Mez), *Motxana* (Lin), *Pittarrena* (Zabal), *Rebex* (Auz), *Traporena* (Urda), *Txaial Etxaia* (Ol), *Txirrin* (Ilur), *Txurdorena* (Irotz, Iruere), *Xiriku* (Agorreta, Ilur), *Zamarrenea, Zarkumena* (Ardaitz), *Prinzerena* (Esn).

Andia (Idoi). Argi dago kalifikatzaile honen esanahia.

- Asariarena** dugu 1677. urtean Larrasoñan, azariaren itxurarengatik edo.
- Atecoa** (Iragi). 1644. *Attecoa*, eta 1677. urtean *Atecoa*, gaur ere *Atekoa* esaten da. Baliteke *Ate* + *-ko* elkartzetik eratortzea, kontuan har bedi *Attecoa*-k forma bustia erakusten duela. Dena den Erroibarren eta Esteribarren ‘atarie’ izan da erabili den forma, eta Iragin ere bai, eta *ate* ‘pato’ da. *Attecoa*, orduan goitizen bat dateke? Kokapenari dagokionez, menditik etortzean, lehenbiziko etxea da, honenbestez, *Atarikoa* edo *Atekoa*, alegia sarreran dagoena adieraz dezake. Dena den, *-ko* atzizkia ezaguna da antroponimoei erantsita, baina ez Ekialdeko haranetan.
- Bascorena** (Ler). Jentilizioa da ere bai. Nafarroa Beheretik etorritako norbaiti esanen zioten, “tierra de vascos” esaten baitzioten Iparralde guztiari. *Basco Zubeliz* agertzen da XI. mendean Leiren, honenbestez, pertsona-izena da hau, dudarik gabe.
- Beltxa** (Saigots, Sorogain). *Beltza*-tik datorren hipokoristikoa da, eta larruz beltzez zenari egiten dio erreferentzia. Sorogaingo baserria zen, eta abizena ere bada.
- Bonokorri** (Oster), 1644. urtean *Bonet gorri* agertzen da idatzirik; honenbestez, *Bonet boneta* txapela da eta eremu honetan erabiltzen den izendapeña da. Bestaldetik, *Boneta* izen berezia “Bonitas”-en eratorria da eta 1350. urtean dokumentatzen da Lerinen.
- Botaxkolenea** (Auz), (*Botascol* 1726). Antroponimoa da, dudarik gabe, izengoiti batean oinarriturikoa? (< *botaxa* + *ko* atziz. txikigarria?).
- Burtzikina** (Lin). *Buru-txiki*-tik datorren goitizena dugu hau. *Buruchiquina* (1644) eta *Burchiquina* (1726) agertzen da dokumentatua.
- Burrin**, Ollokin agertzen zaigu 1644. urtean. *-In* bukaerak goitizen itxura ematen dio, Salaberrik azpimarratzen duenez (ik. Salaberi 1996: 155), *-in* atzizkidunak txikigarriak dira: *kaskin*, *muxin*, *zurruin*, *tirrin*, *Matachin*, *Pertxin* eta antzekoak. Itxura berekoak, dudarik gabe. Buesak ere Aragoi egindako ikerketa batean gauza bera azpimarratzen du, gizonezko izenei erantsitako atzizkia da *-in* : *Chuchin*, *Chusin*, *Pachin*, *Conchin*, *Charin* etab. (ik. Buesa 1989: 46).
- Buruzuri** (Mez). Horrela esaten zioten ile zuria zuen edonori, XX. mendean dokumentatzen den izena da.
- Exkerrena** (Ol, Idoi, Bizk). Eskuz ezkerren zenari deitzeko modua, *Ezquerrena* dugu 1644 eta 1726 urteetan, *Ezkerrena* etxea ere badugu XX. mendean Gerendiainen.
- Falantxon** (Lin) etxe-izenak ere izengoiti baten itxura du, erdaraz, *grandullón* edo *cabezón* gisakoak. González Ollek (1971: 488) ere XIV. mendean *Chancarrón* goitizena ekartzen du.
- Galtxarena** (Urt). *Galcharena* 1726. Gure ustez izengoiti baten aurrean gaudu, “galtxa” deituko baitzioten norbaiti.
- Gorritxo**, Zuriaingo etxe-izena da, kalifikatzaile hutsa. Gaur, dena den, erdaraz esaten zaio: Casa *El Rojo*.
- Iketza** (Eu). Eugiko gaurko taberna honen esanahia argia da euskaraz, baina etxe-izen bezala azken mende honetan agertzen da.
- Kaxenia** (Lin). *Caserena* 1726. urtean eta *Casarena* 1780. urtean Lintzoainen, Salaberrik dioskunez. Antroponimo hau goitizena dateke ziurrenik, “casa” izen erdaldunetik datorrena. Litekeena da, pertsona bati izengoiti hau jartzea etxea zuelako edo. Baina, deitura ere izan liteke, Mugartzak eskei-

- nitako datuen arabera gisa honetako deiturak ugariak dira²: cf. *Gaxen*, (Izaba, 1563) eta *Kaxena* ere badugu Berueten eta Santa-Garazin. *Caset* ere badugu Lescunen 1820. urtean eta *Casette* Izaban eta *Aretten* eta *Gaset* (Uztarroze, 1892), azkenik Burgin (1896) *Gasa* agertzen da.
- Kixkil** Mezkirizko bentaren izena da, mende honetan erabiltzen dena. Goitizena da, gure amaxik zioenez, gazta egiteko tximitxa bat hartu zuen etxe hortako batek, tximitxa suaren ondoan jarri eta gazta kixkaltzeko. Hemendik dator, *kizkali* > *kizkil* da bilakabidea.
- Lutxerena** (Urtas). “Luze” adjetibotik eratorritako forma dugu hau. *Lucearena* 1644 eta *Luserena* 1677. urteetan dokumentaturik.
- Makurra** (Irotz) Ezaugarri fisiko bati egiten dio erreferentzia. *Makurra* da gorputz makurtua zuelako edo, XX. mende aurretik ez dugu dokumentaturik aurkitu. *Makurra* dugu Irotzen eta *Makurranekoa* Iruren; biek ‘torcido’ esanahia dute.
- Mantta** (Erro). Goitizena da, *Manta* izenetik datorrena. Gure Erroko aitaxik kontatzen zuenez, “manta” bat faltatu zelako edo hasi zen etxe honetako bati, horrela deitzen erdi txantxetan. Ez da aurretik dokumentaturik agertzen.
- Martinbeltzena** (Lar) izena + kalifikatzailea agertzen dira Bizkarreteko etxe honetan.
- Moñana** (Mez). Mezkitzen diotenez, etxe honetan zen neska polit bati, *Moña* esaten zioten. Ez da dokumentuetan agertzen eta etxe berri xamarra da.
- Mostruarena** (Loi) *Maistrearena* bilakatu da urte batzuk geroago, desitxuraketa edo transkribatzeko akatsa.
- Motxaña** (Lin). *Motxa* goitizenetik datorren izena da. Ez da aurretik dokumentatua agertzen.
- Rebex** (Auz) esaten zaio gaur etxe honi eta *Errebesenea* agertzen da dokumentuetan (Auz. 1644 eta 1726). Ziurrenik goitizena da, *Errebex* deituko zioten bati, eta hortik bere deitura.
- Traporena** agertzen da Zuriainen gaur, XIX. mendeko izengoitia da ziurrenik, *Trapo* erdal izenarekin gurutzatua. Baina, 1677. urtean *Trapalena* idazten da. *Trapala*, Azkueren arabera, “el desgarbado” da.
- Txantxumenea**, *Sancho Ganbara* 1644. urtean, gero *Sanchomarena* bilakatzten da 1724. urtean eta azkenik, *Txantxumenea* Ardaitzen. *Ganbara* ziurrenik abizena da.
- Txaia**, **Etsaia** gaur egungo Olondrizko etxea da. Seguruenik goitizena da, “Etsaia”?
- Txurdorena** (Irure), *Xurdorena* dugu Iruren 1644. urtean eta *Curdorena* 1677. urtean, erdarazko ‘zurdo’, dudarik gabe.
- Xiriku** (Agor, Ilur, Gend). Etxe-izen hau izengoitia dateke; *ziriko* ‘zeta’ da, baliteke, pertsona honek ‘atorra’ edo jantziren bat oihal hortakoa izateagatik horrela izendatzea. Bestalde, posible da *Zirikoa* deitzea materiale hau lantzen zutenei, hiru herritan agertzea gehiegizkoa iruditzen baita goitizena izateko. Hona aurkitu ditugunak: *Xiricurena* agertzen da dokumentatua 1634. urtetik Agorretan. Gendulainen ere *Xiricurena* edo *Chri-*

² Esker mila Juankar Lopez-Mugertzari haren laguntza estimagarriarengatik.

corena ditugu, eta Ilurdozen *Xiricu* eta *Ziricurena* agertzen zaizkigu. Ohar bedi, bidenabar deigarria dela beti izen hau Esteribarren agertzea eta Erroibarren ez.

Xolda (Ard) Ardaizko izen honen jatorria *Zolda* da, eta honen esanahia da “zikinkeria larruan”, “zolda” zuenari *Xolda* deituko zioten seguruenik.

Zarkumena (Ard). *Zabar-umeak* dira adindu ondoren haurdun gelditzen diren andreak. Salaberrik (1996: 158), biltzen du goitizen hau: “Sebastian de Ripalda dho. (Dicho) *Za. rcume* y Catalina de Ayanz su muger Vecinos del lugar de Sengariz”. *Çarcume* dugu 1644. urtean eta *Zarcumerena* 1726. ean.

Zirkutu Mezkirizko etxe-izen hau 1865. urtean *Circuitim* bezala agertzen da dokumentaturik (ik. Ibarra 1991: 356), izengoiti itxura du (< txerrikutin?), *kaskuin* (‘buruandi’) eta *-in* bukatutako horien gisara.

Chosnes (Auz) *Txosneak* ziren ogi luze batzuk elizara eramaten zirenak. Hitz hau bizirik gordetzen da oraino. Goitizen itxura du oikonimo honek.

Bistan denez, pertsonaren kalitateak deskribatzen dituztenak dira mai-zen agertzen diren izengoitiak: *Ezkerra* (Biz), *Zurdo*, *Xurdo*. Hauek ere usu erabiltzen dira beste kultura batzuetan, hala nola, mudejarren antroponimotan. (Cf. Laliena 1996)

Bestaldetik, *Beltxa* eta *Zuria*, alegia, larru kolorea deskribatzen dutenak ugariak dira, hala nola *Beltxania*, *Zuriarena* etab. Azkenik, pertsonaren ezau-garrei erreferentzia egiten dietenak hauek dira: *Xiriku*, *Mantxa*, *Rebex*, *Xolda*, *Traporena/Trapalena*, *Moñaña* eta *Zarkumena*.

1.5. Ahaidetasuna

Hurrengo talde honetan familiaren senideen arteko ahaidetasuna adierazten da. Jakina denez, euskaldunek beren etxeak izendatzeko erabili duten prozedura izan da hau, Mitxelena aspaldian testigatu zuenez:

Los vascos antiguos empleaban frecuentemente designaciones de parentesco como nombres personales. Este uso está bastante extendido como fenómeno aislado, pero aquí es asombrosa la proporción de nombres de parentesco en los nombres que han llegado hasta nosotros (Mitxelena 1973:18).

Hona aurkituriko etxe-izenak:

Anaia (Auz). *Anaia*-rena-tik eratorria. *Anaia*, *Anaie* patronimiko moduan XI. menderako dokumentatzen da.

Muticorena (Zil. 1644) Argi dago honen esanahia, *mutil*, *mutiko* ‘muchacho, criado’ baita. Iruñea ondoko herria ere *Mutiloa* da.

Sastresseme (1644. urtea) dokumentatzen da Zuriainen, eta *Sastrearen* semea da argiki.

Txantxumenea (Ard). *Sancho Ganbara* (1644), *Sanchomarena* (1726), eta mende honetan *Txantxumenea* dugu, honenbestez, nahiko desegituratua agertzen da.

1.6. Gizarte-estatusa

Etxe-izen hauetan gizartean zein estatus betetzen duten jabeek adierazte-
ra ematen da. Hona aurkiturikoak:

- Amorena** (Eu). *Amo* erdal izenetik dator, “la del amo”. Izena erdaraz eta atzizkia euskaraz aurkitzea ez da harrigarria, baita alde euskaldunetan agertzen dira izen erromantzeak ere. Horrela, *Zarragerorena* dugu Berriosuson edo *Chicopeonena* Ostitzen (ik. Iñigo 2000: 147). Era berean, *Amorena* eta *Amigorena* ditugu, azken hau erdal *amigo*-tik eratorria.
- Capitanena** dugu Gerendiainen 1726. urtean. Militarren estatusa adierazten du ziurrenik edota gerta daiteke goitizen bat izatea ere. Salaberrik (1996: 168) goitizen gisa dokumentatzen du: “pieza de Francisco Monton, alias Capitan”.
- Escolarena** (Zil) *Eskolaua* da ‘persona de cierta instrucción’; honenbestez argi dago honen esanahia.
- Ezkonberri** (Eu). Hitzak dioenez, “ezkondu berrien” etxea da eta XX. mendean dokumentatzen da.
- Kondearena** (Auz, Mez). *Conde* erdal hitzetik datoz oikonimo hauek guztiak, horrela, *Condearena* dugu *Aurizberrin*. Mezkitzen *Condearena* (1644) eta *Conderena* (1726) ditugu. Oikonimo hau *Kondia* bilakatu da Mezkitzen.
- Maixternia** (Lin). Jakina denez, maixterrak ziren besteen etxeetan alokairuan bizi zirenak. Etxe anitz izaten ziren herri ezberdinetan, baina, hau da gelditu den izen bakarra.
- Merioren** 1644. urtean agertzen da Olondritzen, *Merio* da erdal ‘merino’, ‘alguacil’, aziendak beren bazkalekuetan zaintzen zituena.
- Prinzia** (Esn), gaurko izendapena da, *Princearena* formatik datorrena; horrela agertzen baita dokumentatua 1726. urtean. Bistan denez, *Princea* antroponimoa dago oinarrian, ez dakigu jabeak estatus hori zeukan edo izengoitia izanen zen. Etxea eraikuntza aldetik nahiko handia baita, baina, ez da ibar honetako etxeetatik anitz aldentzen. Baliteke, bestalde, *Primicia*-ren sinkopa izatea. *Sancho Primicia* agertzen baita dokumentatua 1366. urtean Lizarran, baina honek ez du zerikusirik honekin. Ollokin agertzen da “*Casa del Abad y Premicia*”; kasu honetan *Primicia* (VN) “Llaman así al edificio donde se almacenaba antiguamente los frutos de la primicia que daban a la parroquia”.
- Tenienterena** ere agertzen da Larrasoñan dokumentaturik 1677. urtean.
- Ynfanzonena** etxe-izena dugu Ilarrazen eta Inbuluzketan 1677. urtean. Honenbestez, “Infanzón” estatusa ohikoa zen.
- Zaldunerena** (Ilar). Zaldunaren etxea da hau, oikonimoak argiki dioenez.

1.7. Txikigarriak dituzten izen bereziak

Jakina denez, palatalizioa eta bestelako errekurtsu batzuk oso erabiliak izan dira oikonimoen alorrean. Horrela, izen berezi askori *-txo*, *-ko*, *-to*, *-go*, *-ot*, *-ño* atzizki txikigarriak izen bereziei nahiz abizenei lotu izan zaizkie González Ollék atzizki hipokoristikoen banaketa aztertu zuen (1971: 485) “Libro de Monedage de Tudela (1353)” delakoan eta, dioenez, batzuetan hipokoristikoarekin aski zen pertsona bat izendatzeko: (...) *esta sufijación parece cumplir una función identificadora o notativa, pues de las personas designadas con tales antropónimos no consta nunca el apellido*. Beste batzuetan, bustidura aplikatuko da, izan ere pertsona-izenak erabiltzerakoan afektibitatea adierazi

ohi dugu, eta palatalizazioa izan ohi da hau lortzeko bide bat. Hona hemen aurkiturikoak:

Batit, *Battit* (Biz), *Bitoricorena* (Larra), *Echecorena*, *Echeconecoa* (Errea), *Echetoa* (Ard), *Enecotena* (Ilar), *Eñaut* (Zil), *Filipiko* (Biz), *Gilontro* (Erro) < *Guilentorena*, *Gilentorena* (Irotz), *Gilenzarena* (Urdaitz), *Juanikorena* (Zabal), *Juanterena* (Zabal), *Juantxe* (Erro), *Lenko* (Zil), *Lopitxo* (Antxoritz), *Luisikorena* (Lar), *Mantxikonea* (Auz), *Mañaña* (Biz), *Maritx* (Esn), *Mariquirrena* (Biz), *Po. Malena*, *Martincorena* (Gend), *Martikorena* (Eu), *Migueliko* (Aker), *Pedrocorena* eta *Pericorena* (Setuain), *Pedromarena* (Iroz), *Pattin* (Biz), *Patxikonía* (Mez), *Pedroxko* (Biz), *Pierreño* (Larra), *Txantxilikorena* (Antx), *Txantxo* (Erro), *Xango* (Ol), *Xilto* (Ai), *Zanzet* (Ol), *Zuriko* (Auz).

Hurrengo lerrootan iruzkina merezi dutenak emanen ditugu:

Batit, **Battit** (Biz) Gerendiango etxe-izen hau *Baptista* edo *Bautistaren* forma laburtua da, monoptongaketaren bidez sortzen dena. Izen hau ez da gure dokumentazioan XX. mendera arte agertzen. Erronkarin horrelakoak badira: (*Baticoche*, Izb, Arette 1856).

Beñardaña (Mez) etxe-izena dugu Mezkiritzen, *Benarterena* Zuriainen eta *Juan Bernardorena* Aurizberrin. Jakina denez, *Bernart* aldaera maiz agertzen da Nafarroa euskaldun osoan.

Echetoa Ardaitzen dokumentatzen da 1726. urtean. *Etxe* + *-to* txikigarria duena.

Eñaut (Zil). *Arnalt*, *Arnaut* XIV. mendean baino lehenago dokumentatzen da Eiaurrietan eta baita Olondritzen ere. Hemendik dator gure *Ernaut* > *Eñaut*. *Ernautena* ere agertzen zaigu dokumentaturik Aurizberrin, kasu honetan palatalizaziorik gabe, izen bera dugu Garraldan.

Esanorena agertzen da dokumentatua 1644 eta 1726. urtean eta *Xanonea* esaten da gaur Erron. Litekeena da *Etsano* batetik eratorria izatea, hauek dira, hain zuzen ere, Bizkaian, Zaraitzun eta Erronkarin erabilitako txikigarriak. Mitxelenak (1973: 133) horrela dio: “Etxanoa, casa urbana de Mañaria (Biz). Es una de las más pequeñas de su calle”.

Filipiko (Biz). *-ko* txikigarria ohikoa da behialako dokumentuetan, gaur egun *-txo* erruz agertzen bada ere, lehenago *-ko* zen ohikoa. Horrela, *Lenko*, *Filipiko*, *Mantxiko*, *Pedroxko*, *Txantxiliko*, *Xango*, *Zuriko* eta *Juaniko* ditugu.

Gilontro (Erro) *Gilen* izen berezitik datorren desitxuraketa da hau, *Gilento* > *Gilentro* (Erro), dardarkari bat tartekatu delarik. Dokumentuetan *Guilentorena* (1644 eta 1726) bezala agertzen da. Gainera, Gabriel Soto Lintzoaingo hiztunak dioenez, bada *Gillon* izeneko borda bat Belaskoaindik beheiti, etxe bat Erron, beste bat Esnotzen (*Guillontrorena* 1726) eta beste bat Irotzen (*Guilentorena* XX. mendea). *Gilen* Akitaniako antroponimoa da, duke saildu baten izena, 812an hil zena. Izen hau *Pierre* eta *Bernard*-ekin batera oso arruntak dira Frantzia. Bourinek (1996: 188) dioenez: “Au cours de XI. siècle, l’homogénéité méridionale s’impose. Elle a déjà relevée par J.L. Biget. Par delà le Languedoc et en dépit de nuances propres à des micro-régions, *Bernard*, *Guillaume*, *Raimond* ou *Pons*, complétés par *Pierre*, constituent la trame de base”.

Juancorena dugu Inbuluzketan Juan + *-ko* txikigarria duela. Bistan denez, *-ko* atzizkia erabiltzen zen gaur baino gehiago.

- Lenko** (Zil). *Leon-ko*-ren txikigarria da, *Leoncorena* agertzen zen 1726. urteko Apeamenduan. *Lentoina* etxe-izena ere bada Garraldan, eta *Leorena* ere (ik. Xamar 1998: 79).
- Lopitxo** (Antx). *Lope* + *-txo* atzizkiez osatua, *Loperen* txikigarria da. Garraldan *Loperena* eta *Lopexoina* ditugu (Xamar 1998: 79). *Loperena* ere agertzen zaigu Inbuluzketan.
- Mantxikonea** (Auz). *Martiko*-ren txikigarria da ziurrenik.
- Mariquirena** (Biz), *Mari*-ren ttikigarria da ziurrenik.
- Maritx** (Esn). *Maritza*-ren apokopea da gure ustez. Izen hau XIII. mendean dokumentatzen da (Bidegain 1999: 298) eta *Maritxe* XVI. mendean, *Enekotx*, *Juanex*, *Perox* bezalakoak.
- Martikorena** oikonimoa dugu Eugin, 1644 eta 1726. urteetan *Martcorena* dokumentatua. Bistan denez, behiala *-ko* atzizki txikigarria erabiltzen zen, gaurko *-txo* baino gehiago.
- Michelcorena** (Loi 1644.). *-ko* atzizkia dugu *Mitxel* izen bereziari erantsia.
- Migueltoarena** (Irure) Miguel-en txikigarria da, *-to* atzizki hipokoristikoarekin.
- Mitxetena** (Ol). *Michetena* agertzen da idatzirik 1644. urtean. *Mitxorena* > *Mitxos* da gaurko abizena. Ilarrazen ere *Michetena* > *Michotena* bilakatu da. *Mitxel* da *Miguelen* aldaera frantsestua eta *Micheo* gaskoinaren aldia da ziurrenik (ik. Mitxelena 1973: 129).
- Pattin** (Biz, Mez). *Martinen* txikigarria da, XX. mendean dokumentatzen da eta *Apattin* ahoskatzen da batzuetan.
- Patxikonía** (Mez). *Patxi*-ren aldaki adierazgarri ezaguna da hau.
- Pedroxko** da Bizkarreteko etxe-izena, *Pedro*-ren txikigarria.
- Primo Micherenea** dugu Eugin 1644. urtean, gero mende berean *Priminchena* bihurtu zen. Lehen izena *Primo* da, latinezko Primus-etik eratorria, eta bigarren izena *Mitxexo*-ren aldakia.
- Saquetena** 1644, **Sacatena** 1726 etxe-izenak ditugu Olondrizen. Gure ustez, *Jakes*-en aldaerak dira, nahiz ez dugun testigatua ikusi. *Jakes* da *Jakoben* aldaera, 1350ean Arronizen dokumentatua jadanik.
- Txantxilikorena**. (Antx) Santxoren txikigarria dateke hau: *Santxo* > *Txantxo* > *Santxiliko*, *Txantxiliko*. Bestaldetik, Agorretan 1677. urtean *Chachotena* agertzen da, gure ustez *Txantxotenaren* desitxuraketa.
- Txantxot** (Eu). Lehenik *Sanchotena* dugu dokumentatua 1644. urtean, gero *Chanchotena* 1677, eta egun *Txantxot* esaten zaio Eugiko etxe-izen honi, eta baita Gerendiainen bizi diren etxe honetatik etorritakoei. Oikonimo honek *-ot* atzizkia du, *Pantxot* antroponimoak duen bezala, *Frantzesen* aldakia dena. Antroponimo hau XIV. mendetik dokumentatzen da: *Sanchot de Beruet* (1266, PN- XIV, F. Pamp.-Mont., 541 orr) (cf. Irigoien 1994: 252), eta *Sancho* izenaren aldarria da. González Ollek ere XIV. mendean (1971: 4888) testigatzen ditu *-ot* duten hipokoristikoak: *Bertholot*, *Enecot*, *Garchot* eta *Miguelot*.
- Xango** (Ol), *Sangorena* (1726 Ol). *Sangorena* eta *Xangorena* ere agertzen da Erroko testamentu batean (1850), eta gero *Txantxo* dugu mende honetan, honenbestez hortik eratorria izan behar du, antzeko beste etxerik ez baitago Erron Zubirin ere *Chancorena* 1677 eta gaur *Txantxorena*, txistukariaren asimilazioaren bidez. Gerendiainen ere mende honetan bada *Txantxo* etxea, baina aurretik ez da dokumentatua agertzen. *Sant/Sango*

eta *Sanio* dokumentatzen dira Nafarroan XII eta XIII. menderako “vendimus unam peçam de terra in Puio de Sango” (1153, El gran Pr. nav., dok. 21). *Xango* da aldaera palatalizatua.

Xilto (Ain). *Giltorena* 1644. urtean eta 1726. urtean *Siltorena* dugu. *Gil* antroponimoaren eratorria da, *-to* atzizkiarekin. Ahoskera txistukariarekin egiten da kontsonante belarea baztertuz. *Gil* antroponimoa VII. mendeko saildu baten izena da eta 1366an dokumentatzen da Orreagan.

Zanzet (Ol). *Sançetena* 1644 eta *Sanzetena* 1726. Santxoren txikigarria da hau. *Sancet* forma dugu Erron dokumentatua 1366. urtean, (Irigoién 1994: 254) *Sanconet*, *Sancol*, *Sanz* familiakoak. Gaur egun *Zanzet* dugu txistukarien asimilazioaren bidez sortua. *Santarnia* dugu Zubirin *Sanceterena* (1644) eta *Santerrena* (1677) aurreko urteetan, honek ere etimologia horixe du.

Zanzin (Us). Leranotzen, Usetxiren ondo-ondoan dagoen herrian *Zanserena* (1994) > *Zanzin* toponimoa dago (cf. NTM: 146). Izen hau Santxoren hipokoristikoa da eta honen aldaerak *Sancerena*, *Sancinena*, *Sansinena*... dira. Horrela dio Mitxelenak (1973: 148): “*Santsin* se ha conservado hasta nuestros días como apelativo, lo mismo que *Betiri Sants*, como una especie de personificación del hambre”. Usetxin 1644. urtean *Zascorena*, *Tascorena*?³ dugu *-idazkera gaizki ikusten bada ere*— eta 1677.ean *Sanchoarena*, gure ustez etxe berbera da.

-Ko atzizkia erruz erabiltzen da. Hona atzizki honekin aurkitutako etxeizen batzuk: *Zuriko* (Larra), *Bitoriko* (Larra), *Patxikonía* (Mez), *Xango*, *Martiko* (Eu), *Mantxiko* (Auz), *Mitxelko* (Loi), *Txantxiliko* (Agor), *Pedroxko* (Biz), *Lenko* (Zil), *Juanko* (Inbu), *Filipiko* (Biz), *Zuriko* (Biz), *Perrikonea* (Ler), *Juankotena*, *Juanikotena* (Ler).

Bustidura eta hipokoristikoen erabilpena izan da emakumeen antroponimoetan erabili den prozedura ohikoa Bourgoñan Erdi Aroan egindako ikerketa batean (ik. Beck 1992: 98):

“Pendant au moins un bon siècle après les hommes, les femmes exercent un certain droit à la différence; il se réduira ensuite à l’usage très répandu des hypochoristiques déclinant chaque prénom en de multiples formes: *Bonne* donnera *Boneta*, *Bonnotte*; *Clara s’est transformée* en *Claretta*, *Clarotta*, *Clairotte*; *Bella*, fort proluxe, a produit *Beletta*, *Belena*, *Belotta*, *Belotte*”.

Honez gain, hedadura handia daukate txikigarri hauek, bereziki kontsonante sabaikari afrikatua dutenak Aragoian (ik. Buesa 1989) eta baita Espainia osoan eta Hegoamerikan ere.

1.8. Pertsonaren ezaugarriak

Sail honetan pertsonaren kalifikatzaileak aztertuko dira. Gehienetan izen berezia + izenondoa egitura gordetzen da: *Juana* + *gorria*, *Lope* + *gorria*, *Mari* + *galant*, *Martin* + *gazte*, *Martin* + *Andia*, *Martin* + *Beltza*. Beste kasu batean izen arrunta + izenondoa egitura dugu: *Buru* + *Zuri* eta azkenik, lanbidea + izenondoa egiturakoak ditugu: *Artzai* + *aundienea*. Azkenik, *Alcateza*—

³ “vive una pobre viuda”.

rra dugu; oikonimo hau agertzen da 1726. urtean dokumentaturik, gerora *Alkazar* (Auz) bihurtuko da sinkoparen bidez.

Hona hemen denak zerrendaturik:

Alkazar (Auz), *Artzai aundienea* (Mez), *Buruzurienea* (Mez), *Juanagorriarena* (Mez), *Juanochipiarena* (Ilurd), *Lope gorriarena* (Urta), *Marigalantenea* (Zabal), *Martingazte* (Biz), *Martin Andiarena* (Ilar), *Martin Belcena* (1644. urtean).

1.9. Lanbidea

Jakina denez, etxe-izen askok jabearen lanbidea adierazten dute. Hauetako batzuk *-rena* atzizkiaz lagundurik joaten dira:

Alkatrena (Ol), *Alkatearena* (Sar), *Anboliñarena* (Auz), *Apatenea* (Auz), *Apesui* (Mez), *Apeztegia* (Irotz, Lin, Mez), *Arakiñena* (Mez), *Arginenea* (Ilar), *Arotzarena* (Biz), *Azarrea* (Erro), *Barbezar* (Erro), *Barberena* (Ol, Urda), *Bastarena* (Ilur, Usetxi), *Basterena* (Osteritz), *Bastilleta*, *Bastegileta* (Larra), *Bastero* (Biz), *Cerero* (Ol, Erro), *Ermitaño* (Ur), *Esportero* (Mez, Urtasun), *Juanxarginenia* (Lin), *Llallania* (Mez), *Maistrozarraña* (Mez), *Motxale* (Erro), *Pattana* (Ard), *Paxtorra* (Biz), *Sastreneal/Sastrearena* (Eu, Aker, Zub), *Sastrerena* (Irotz), *Sastrenia* (Lin, Auz), *Tejedor* (Mez), *Tornarena* (Auz), *Txokolatero* (Mez, Larra), *Xapatero* (Biz), *Xaxkil* (Ol), *Xerrajero* (Erro), *Zapatero* (Mez), *Zata* (Auz), *Zurdinzar* (Esn), *Çapataguinena* (Erro), *Zapataguinarena* (Biz), *Maistrena* 1726 (Loi), *Orotx* (Erro).

Anboliñarena/ Ddanbonenea. *Danborinena* (Auz) Ttun-ttun jolearen izena da hau. Hauek emanen zioten izena etxe honi. Hondarribiko etxe-izenetan, XVIII. mendetik testigatzen da oikonimo hau. Era berean, *Danborinena* eta *Danbolin*, *Danbolinena* agertzen dira XVII. mendetik aurrera (ik. San Martin 1993: 316), eta baita *Danborinena* ere.

Apesui (Mez). Argi dago oikonimo honen lehen zatia “apez” dela, 1700. urtetik dokumentatzen da eta *Apesuiena* bezala agertzen da idatzirik. Gainera, etxeko testigantzek diotenez, apez bat bizi izan zen gure etxean; bide batez esanen dut nire sortetxea dela hau. Honez gain, badago *Apeztegui* forma 1597. urtean dokumentaturik, “Joanes de Apestequi” baitzen etxeko jabea, gerora 1644. urtean aurkitu dugu “Juanes de Erro y Apestequi, dueño de la casa de Apestequia”. Bestalde, Apeamendua egiterakoan etxeak hurrenkera batean agertzen dira, eta honengatik ere atera dezakegu *Apeztegi* hori gaur *Apesui* dela. Beranduago, 1723. urtean *Apesugui* edo antzeko zerbait agertzen da idatzirik.

Datu hauek ikusita, argi esan daiteke *Apeztegia* gero *Apesui* bihurtu zela, gure etxeko jabeak zein ziren kontuan izaten baditugu. Gure etxean *Joanes de Erro* eta gero *Juan de Linzoain* izan baitziren jabeak. Guk, gainera beti entzun dugu etxea apez batek egin zuela, eta gero harekin bizi ziren ilobei utzi ziela eta hauxe bera frogatu dugu eskriturretan.

Salaberrik, ordea, *apez* + *sui* proposatzen du patronimiko moduan. Gisa honetan eraikitakoek egitura hau dute: izena + genitiboaren ondarkia + seme (‘alaba’) segida; hauek patronimiko balioz ibili direla pensatzen da. Nahiz urri diren agertzen diren adibideak Salaberrik hauek aurkitu ditu (1995: 154): *Bortaseme*, *Marikin seme*, *Bernartseme*.

Ikertzaile honek, bestalde, *Apesui* etxe-izena aurkitu du Iraizotzen. Haren ustez, izengoiti baten aurrean gaude eta, *apez-suia* dagoela horren atzean proposatzen du. Gure ustez, nahiz apezak alaba bat izan –erabat arrunta izan den gertakaria, bestaldetik– eta alaba horrek, urteak pasa ahala, ezkondu eta sennarra eduki, zaila egiten zaigu izen horrekin ezagutzea, eta are gehiago, publikoki ezagutzera ematea eta notarioek ere paperean islatzea. Gainera, Mezkirizko etxe honen izena horrela da, ez da izengoiti bat.

Agian ikertzaile honek aipatzen duen Iraizozko kasuan (ik. Salaberri 1995: 167) egia da hau. Izan ere, “alias” batez ari gara: “Juanot alias **apez suya** de yraicoz y graxito su mugar”.

Hona hemen banan bana oikonimo hauek denak zerrendaturik:

Alkazar (Auz) da gaur egungo izena, baina *Alcatezarra* bezala agertzen da 1726. urtean.

Apatenea edo **Pattana** < **Patiarena** dugu 1644. urtean Ardaitzen. Aurizberrin *Apaticoa* (Auz) edo *Apat* dugu.

Abbas,-atis formatik eratorriak dira hauek, gero *Apate* bilakatua, eta aferesiaren bidez, *-a* desagertu duena: “Apezaren etxea” adierazten du. Gaur egun herri hauetan “la casa del cura” esaten zaio ibar honetako etxe hauei.

Apeztegia (Iroz, Lin, Mez), apezaren etxea da hau, *apez-tegi* formatik eratorria.

Arakiñena (Mez). Harakina da haragia saltzen duena, Mezkirizko XX. mendeko etxea da gaur.

Arginenea. *Arguinarena* (Ilar). Hargina da harria lantzen duena. “Arquinas el Cantero” ere agertzen da Larrasoñan.

Juanxarginenia (Lin), *Juan-zahar-arginarena* du oinarrian oikonimo honek.

Ariendena agertzen da Loizun 1726. urtean, eta gero *Cantero* etxea dugu gaur egun. Itxura guztien arabera, *Arriendena* da *Arginarenaren* desitxuraketa, notarioak gaizki jasotako forma da ziurrenik erdal forma hau.

Arotzarena. *Arochenia* (Esn), *Arozteguirena* (Biz). ‘Arotza’ da burnia lantzen duena, eta bistan denez, bi baino gehiago baziren Erroibarren. Baina, gero, Gerendiainen arotzaren etxeari erdaraz “Casa Carpintero” deitu zaio, eta egun “Casa Fernández” bilakatu da. Litekeena da, arotza horrek zurgin lanak ere egitea, eta hortik eusk. *Arochenia* > erd. *Carpintero* bilakabidea. Erdal “herrero” ere agertzen da 1644. urtean, “del herrero de arriba”.

Azarrea (Erro) da *Arozteguizarrearen* desitxuraketa, hau frogatu dugu dokumentazioaren bidez. *Arozteguiçarrecoa* agertzen da Erroko *Gilontro*, *Zabalea* etxeen ondoan 1644 eta 1726. urtean, hiru hauek auzo bat osatzen dute.

Ballestarena (Zuriain). *Ballestari* 1644, *Baleztarena* 1726 eta *Ballesterena* XX. mendean. Ziurrenik *baleztari*-ren eratorritakoa da izen hau, erdaraz ‘ballestero’.

Barbezar (Erro). *Barbero-zahar* da honen etimologia. *Barberena* (< Barbero-arena) ere badugu Urdaitzen eta Olondritzen.

Basterena (Oster)/ **Bastarena** (Ilur) / **Bastero** (Biz), **Bastailena** (Larra). Oikonimo hau “basta” izen euskaldunetik dator. Gaztelaniaz ere badira “bastero” etxeak ibar hauetan. Etxe hauek denda gisakoak izaten ziren eta denetarik saltzen zuten, oinarrian “basta” hitza izanik. Jakina denez, “basta” da abereek, alegia mando zein astoek gainean eramaten zutena eta

- “txalma” baino sendoagoa zena. Egun ere *Bastero* etxe-izena dokumentatzen da Huarten eta Gerendiainen, eta etxe hauek denda antzekoak izan dira gaur arte. Berauetan bazkaria saltzeaz gain, herri batean beharrezkoa zen edozein gauza saltzen zen. Bestaldetik, *Baste egilerana* > *Bastailena* (Larra) bilakaera dugu.
- Cerero** (Erro eta Biz). *Cerero* erdal hitzak dioenez, argizeria eta txokolatea saltzen zutenak ziren, eta horrezaz gain, herriko dendak izaten ziren, denetarik saltzen zutena.
- Ilarena** (Agor), **Irailarena** eta **Llallania**, *Ilegilea* > *Llallania* (Mez.), *Eallearena*, *Irailarenea* (Urtasun), *Leallearena* (Zil). Hauek guztiek etorri berbera dute eta “ile-egilearena” forma dute horren azpian. Alegia, ardien ilea lantzen zutenak ‘cardador de lana’ izaten ziren, erdal *Tejedor* horien ordekoak. Mezkitritzen, 1644. urtean *Tejedor* agertzen da, nahiz gaur ere, jendearen ahotan *Llallania* mantendu den.
- Ellaguinzarrarena* eta *Ellançarrarena* da Urdaitzen aurkitutako etxe-izena, (< ilegile-zaharrarena), alegia. *Leallarena* ere dugu Zubirin 1677. urtean.
- Mandulariarena** etxe-izena agertzen zaigu Ilurdotzen eta Larrasoñan (1677. urtean). Erdal ‘mulero’ da, alegia, mandoekin zebilena.
- Maistrozarraña** (Mez) etxeak argiki dioenez, “Maistro-zaharrarena” da. *Maistrerena* ere agertzen da Loizun; kasu honetan, maistroaren etxea da.
- Mercatariarena** (Mez), 1644. urtean agertzen da eta gero ez da berriz ateratzen, merkatuan aritzen zirenei esaten zitzaien, sal-erosketetan aritzen zirenak, jakina.
- Motxale** (Erro) oikonimoa *motzailea* da, alegia, ardien ilea moztzen duena.
- Orotx** etxea bada gaur Erron eta Esnotsen ere 1726. urtean horrela agertzen da, baina, 1644. urtean *Arochena* zen. Honenbestez, badakigu *Arotx* dagoela oinarrian, eta gero izen hori Errora eraman zuela Esnozko norbaitetik, herri hortara ezkondu zena.
- Paxtorra** (Biz) Izen hau *Pastor* erdal hitzaren ahoskera da, *-r* hitzaren bukaera gogorra bihurtu delarik artikulua eransterakoan, euskal fonetikaren legei jarraikiz. Horrela, *yogur* hitzaren plurala *yogurres* da kasu askotan, guk entzun ahal izan dugunez hemengo hiztunen ahotan.
- Sastrenia**, **Sastrena**, **Sastrearena**, **Sastrenea**, **Sastrenea**, **Chastrerena** (Aker), *Sastresamerena* (Biz), *Sastrezarrarena* 1726 (Ol) dira oikonimo honek hartzen dituen forma ezberdinak. Denak *Sastre* izen berezitik + *-rena* atzizkitik eratorriak.
- Soldadorena** (Ai) dugu 1644. urtean, *Soldarena* 1726.an eta gaur *Xolda* (Ai), argi dago *Soldado* hitzetik datorrela izen hau. Salaberrik (1996: 168) ‘Marcos López el Soldado’ aurkitzen du.
- Tornarena** (Auz) esaten zaio gaur Aurizberriko etxe honi, *Tornariarena* aurkitu dugu dokumentaturik 1644. urtean, eta 1726. urtean *De Tornaria*, honetan argi ikusten da notarioaren joera toponimoak transkribatzean. *Tornari* lanbidetik eratorritakoa da hau, erdaraz *tornero*.
- Zamarginena**. Urtasunen *Camarguinarena* dugu 1644 eta 1677. urtean eta *Camarguinena* (Lintzoain 1644), azkenik *Zamarrenea* agertzen da XX. mendean herri honetan. Azkueren arabera, Bizkaian *zamargina* ‘operario que hace frontales para los bueyes’ da. Iñigok (2000: 141), ordea *zamargile* edo *zamargin* ‘pellejero’ dela dio. Nolanahi dela ere, Urtasungo *Zamarrenea* badakigu nondik datorren; baina gehiago badaude. Esaterako,

Camarrena (1644. Esn) dugu Esnotsen, eta *Xamarrena* Garraldan (ik. Xamar 1998: 79), eta *Jamar* erdal abizena kontsonante belarez ahoskatua arrunta da inguru honetan.

Zatarena (Auz) < *Zelatariarena*-ren desitxuraketa da, horrela agertzen baita dokumentaturik mende bat lehenago, alegia, lanbidea adierazten duen oikonimoa da hau. Egun *Zata* esaten da dokumentuetan *Çatarena* agertzen da 1644. urtean, gerora, Barandiaranek aldaki hauek guztiak biltzen ditu: *Zaterenea*, *Zaterena*, *Zatanea*.

Xerrajero (Auz) *Sarajero* dugu 1726.urtean, erdal *Cerrajero*, dudarik gabe, bustidurarekin eta guzti.

Tejedor (Mez), **Esportero** (Mez), **Cerero** (Ol). Bistan denez, badira izen erdalduna duten etxe-izenak, hala nola aipatu hauek. *Esportero*-ek 'Esportak' egiten zituzten eta 'Cerero'ek argizeria eta txokolatea etabar saltzen zuten.

Xaxkil (Ol), oikonimoa *Xaxki-egile* formaren apokopea da, alegia, saskiak eta esportak urritzekin egiten duena da. Gaur egun, hauen orde, *Esportero* oikonimoa dugu Mezkitzen.

Zapataginena (Erro), *Çapataguinarena* (Biz), *Xapatero* esaten zaio gaur Bizkarreteko etxe bati, baina ez gaude ziur etxe berbera ote den.

Zurdinzar (Esn), kontsonante txandaketa izan bada ere erdian, *Zurgin zaharra* adierazten du forma honek.

2. ETXEAREN EZAUGARRIAK DESKRIBATZEN DITUZTENAK

2.1. Etxearen alde deskriptiboak

Ibar hauetako etxe-izen askok jabearen izena daramate. Jakina denez, oikonimoak toponimoak baino aldakorragoak dira, izan ere, etxearen jabea aldatzen zen heinean, edota lanbidea aldatzen zuen arabera, etxearen izena ere alda zitekeen. Dena dela, badira beste oikonimo batzuk etxea deskribatzen dituztenak, eta etxearen funtzioa edo berria edo zaharra zen, nola eraikia zegoen eta horrelako xehetasunak ematen zituztenak, eta honako hauek dira:

Abadia (Ard), *Andia* (Esn), *Apezteguizarrecoa* (Irag), *Atecoa* (Irag), *Borda* (Irag), *Baltegie* (Lin), *Dorrea* (Ard), *Etxandi* (Esn), *Etxandia* (Lera), *Etxeberri* (Mez, Agor, Ilar), *Etxetxikia* (Auz, Eu, Biz, Mez), *Etxezar* (Agor, Biz, Eu), *German dorrecoa* (Irag), *Itxezarrea* (Inbu), *Jauregia* (Eu), *Palacio* (Olloki), *Tanazarria* (Lin), *La venta* (Irotz), *Xauregi* (Erro), *Zabalea* (Erro), *Zuria* (Mez).

Apezteguizarrekoa (Irag). Honek argi adierazten du *Apeztegi* esaten zaiola apezaren etxeari.

Baltegie (Lin, Ard), jakina denez, *bala-tegi* formatik dator. Alegia, garia edo edozein sekaleren *balak* gordetzeko tokia zen hau.

Borda (Irag) Argi dago etxe honen jatorria, borda bat zen.

Dorrea (Ard, Irag). Ardaitzen ditugu Erroibarko etxe zaharrenak, etxeetako ezkutuetan agertzen baitira urteak idatzirik, eta hauetako batzuek dorre itxura daukate.

Etxeberri, **Etxetxikia**, **Etxezar**, **Etxandia**, **Andia**. Argi daude hauen guztien esanahia, izen euskaldun hutsak dira eta ez du merezi hauen gainean iruzkinik egitea.

Ychasmendia? Eugin agertzen da dokumentaturik 1677. urtean etxe hau; bigarren zatia argi dago, baina lehenengoa ez dakigu oso argi, ilun xamar agertzen delako. Eransten du: “cuyo dueño es de Egozcue, Guardamont, que es Guardamontes”. Bistan denez, bigarren zatiak bere lanari egiten dio erreferentzia.

Itxezarrea (Inbu). Bistan denez, *itxe* forma Ultzaman erabiltzen denaren antzekoa da; horrez gain, *zarrea* formak *-e* paragogikoa dauka. Fenomeno hau ez da beti suertatzen, esaterako, *Azarrea* (< *Arostegizarrea*) dugu, baina *zarra* kalifikatzaile hutsa dutenak ere bai, hala nola: *Arostegizarrecoa* (Erro), *Alkazar* (Auz), *Barbezar* (Erro), *Maistrozarraña* (Mez), *Zurdirzar* (Esn).

Jauregia (Eu), **Xauregi** (Erro). Izenak dioenez, Erroko etxea jauregi bat da, nahiz eta urteen poderioz aldaketak eta birmoldaketak jasan dituen eta itxura anitz aldatu den. Orain, Erron *Xauregi* etxea esaten zaio beste bati, ez jatorriz zenari. Hau gertatu da etxe hortako jabeak etxez aldatu zirelako eta haiekin izena eraman zutelako. Erroko oikonimoa fonema igurz-kari sabaikariarekin ahoskatzen da. Hauekin batera, erdal forma ere badugu: *Palacio* forma agertzen da Esteribarko Olloki herrian.

Tanazarria (Lin), etxe hau taberna-zaharra formatik dator bertako berriemaileek horrela egiten zutelako, sinkoparen bidez *zarrea-k e* paragogikoa duelarik.

Zabalea (Erro), *Çabalecoa* 1644, *Zabalecoa* 1726. Erroko etxe zabal hau *zabal* adjektibotik dator ziurrenik, *-e* paragogikoa dauka; benetan etxe zabal eta ederra da.

2.2. Leku-kokapena

Sail honetan etxea non kokatzen zen esaten zaigu. Oikonimo hauek zenbaitetan atzizkirik gabe agertzen zaizkigu, baina beste batzuetan *-rena* atzizkiaz lagundurik: *Zokorena* (Olloki), *Erdikonia* (Biz).

Beste kasu gehienetan, *-ko* agertzen da: *Errecaldecoa* (Irag), *Iturraldecoa* (Irag), *Apezteguizarrecoa* (Irag), *German dorrecoa* (Irag), *Echeandicoa* (Lera), *Zunzarrenecoa* (Sai) eta baita *-eneko* ere. Dena den, toponimo hauexek *-ko* gabe ager daitezke urte batzuk lehenago, 1644. urtean, esaterako.

Hona zerrendaturik kokapena adierazten dutenak:

Ardantxena (Ard), *Artxondo* (Ai), *Asiturri* (Olloki), *Azpiltxe* (Biz), *Atecoa* (Irag), *Aurkesia* (Eu), *Beitigotz* (Eu), *Beitikoa* (Loi), *Beitikoetxea* (Ilur, Urtas), *Echeberribeiticoa* (Auz), *Biskerena* (Urdaitz), *Elizaga* (Eu), *Elizaldea* (Auz, Larra), *Elizerie* (Lin), *Elizondo* (Auz), *Elizgibel* (Auz), *Erdiko etxea* (Irotz), *Erdikonia* (Biz), *Erdikotzea* (Irure), *Errekalde* (Mez), *Errekaldea* (Auz), *Rekaldea* (Iragi), *Etxarren* (Auz), *Garaikoa* (Eskir, Loi), *Goitikoenea* (Saig), *Goitikoetxea* (Urtas, Saras, Ilur), *Iturraldea* (Auz, Irotz), *Larrañeta* (Auz), *Prinzia* (Esn), *Rekaldekoa*, *Siturri* (Osteritz), *Tartapea* (Urda) *Tximindoa* (Urdaitz), *Untxe* (Ol), *Xoko*, *Xokonea* (Auz), *Zokorena* (Olloki), *Txokorena* (Errea), *Xoto* (Loi), *Zugarrondo* (Zabald), *Urruticoechea* (Inbul), *Yparaguerria* (Sar).

Ardantxena (Ard), *Ardanchena* idatzirik agertzen da 1644. eta 1726. urteetan. Jakina da behiala ardantzeak zeudela Erroibarko hegoaldeen zeuden herrietan. Esaterako, *Ardaitz* nahiko hegoaldean kokatzen da badakigu *-herriko* jendeak kontatu digunez— hemen ardoa egiten zutela. Hartaz, etxea

- “ardantze” batean kokatuko zen ziurrenik. Esteribarren toponimo hau oso arrunta da, adib. *Ardantxepeta* dugu Saigotsen, eta beste asko.
- Asiturri.** ‘Azeriaren iturri’ edo?, 1644 eta 1677. urteetan dokumentatzen da etxe-izena bezala, gero *Siturri* bilakatzen da, Ollokin eta Osteritzen ere agertzen da. Bidegainek (1999: 79) Zabaldikako toki-izen bezala testigatzen du. Baliteke toki horretan eraikitako etxeei esatea.
- Artxondo** (Ai). Abizena dateke, harri ondoan kokatzen dena.
- Atabarren** (Erro 1644 eta *Atabarrena* 1726) *Ate-barren* toponimotik eratorria, alegia.
- Aurkesia** (Eu), ez da aurretik dokumentatzen. *Aurkezkoa*-ren esanahia izan dezake, aurkez-aurke “cara a cara”?
- Azpiltxe** (Biz). *Azpiltxe* esaten zaio *axpil* anitz dagoen tokiari. Azkuarentzat *azpil* da “artesa, gamella”, baina hain ohikoa da toponimian ezen pentsatu behar da seguruenik *azpil*, *aizpil* hitzetik datorrela ‘húmero, aliso’ Plácido Mujika’ren arabera: ‘cierta especie de poma’, que Mendigatxa, de Vidángoz (FV 43), usa como *axpil* (cf. Lexar) recoge *azpil* como nombre de planta “aquí se llama *axpil* a un árbol de planta baja, da el fruto parecido a la guinda que les gusta a los chicos”.
- Beitikoetxea** (Ilur, Urtas, Errea). Beheitin dagoen etxea da hau. Bistan denez, bi ibarrotan erabiltzen dira *beiti* eta *goiti* formak,
- Beitigotz** da Eugiko etxea. Hasierako zatia argia da, baina bigarrena zailagoa da. Cf. Eronkarin⁴ *Batikotx*, *Petrotx*, *Nekotx*, *Salbotx*, honen arabera, deitura ere izan zitekeen.
- Beitikoa**, **Beitikua** (Loi) oikonimoak argi adierazten du *Beitin* dagoena.
- Biskerena** (Urda), *Vizcayena* 1677. urtea, *bizker*-etik datorren forma da hau seguruenik, eta *bixker*, *bizkar*, *biskarro*, *bixkerro* “loma” adierazteko erabili izan da. Bestalde, *Bixkai* (Ai) etxe-izena dugu Aintzioan, Arrietan (Artzibar) bezala, etxe hau *Bizcaia* agertzen zen idatzirik XVIII. mendean. Mitxelenak dioenez, **bizkai* erabili da leku altuak edo garaiak seinalatzeko.
- Elizaga.** Eugin agertzen zaigu 1644. urtean. *Eliza* + *aga* toponimotik eratorria. –*aga* atzizkiak kasu honetan hurbiltasuna adierazten du.
- Elizaldea** (Auz) eta **Elizerie** (Lin) formak elkarren antzekoak dira eta esanahi bera dute.
- Elizgibel** agertzen da 1644. urtean Aurizberrin dokumentaturik. Elizaren gibelean, argiki dioenez.
- Erdikoetxea** dugu Irotzen eta *Erdikonia* (Ger) Gerendiango etxe ederra da, herriaren erdi-erdian kokatzen dira biak.
- Errekaldea** (Auz, Mez), **Rekaldea** (Irag) izena duten etxeak erreka baten ondoan kokatzen ziren. Dena den, batzuetan errekek desagertu dira, orain Mezkiritzen bezala, eta oikonimoek argi adierazten dute zer zegoen hor.
- Etxarren** (Auz, Erro), oikonimo hau bi herritan agertzen da, baina ez dugu aurretik dokumentaturik aurkitu, *etxe-barren* > *etxarren* da bilakabidea, alegia, beheko etxea.
- Etxegoien** (Larra) Argi dago honen esanahia, baina, etxea ez dago goitin kokatua, zelai batean baizik.

⁴ Informazio hau Juankar Lopez-Mugartzari zor diot, bihoaz hemendik nire eskerrak.

- Garaikoa.** (Garaycoa 1644, 1772), goian dauden etxeak dira, Loizun eta Eskiroitzen agertzen zaizkigu.
- Goitikoenea** (Saig). Argi dagoenez, goitin kokatzen da etxe hau. “Goitikoa” goian dagoena adierazten du. Bistan denez, bi adberbio agertzen dira haran hauetan: *Garaikoa* eta *Goitikoa*.
- Goitikoetxea** (Ilur). Goian dagoen etxea.
- Iparaguerria** (Sar), etxe-izen honek non kokatu den adierazten du: (ipar + agerre, agerru, agirre). Konposatu honen esanahia da ‘lugar abierto, expuesto, encarado a’.
- Iturraldea** (Auz, Iroz, Irag) Iturriaren ondoan kokatua.
- Irigoi** (Esn). Herriaren goiko partean dagoen etxea, nahiz hemen erabiltzen den forma “goitin” den.
- Iribarren** (Esn). Herriaren barne edo behe aldean. Gero hau abizen arrunta bihurtu da.
- Kaminoa** (Urda) Errepide nagusiaren ondoan kokatzen da.
- Larrañeta** (Auz) larrain batean eraikitako etxea da, *-eta* atzizkiak lekua adierazten duena.
- Placarena** (1644 Aintzinoa). Plazan kokatua, dudarik gabe.
- Zugarrondo** (Zabal) da Zugarraren ondoan dagoen etxea; argia da izen hau.
- Untxe** etxea Olondrizkoa *Euntzetik* etor daiteke ‘soroa’ adierazten du, *Euntzea* agertzen da dokumentatua. *Eunçecoa* 1644. urtean agertzen da eta *Eunzea* ere 1726. urtean Esnotsen, gaur desagertu da izen hau, baina jatorri berbera du.
- Xoko, Xokonea** (Auz), *Txokorena* (Errea) eta *Zokoreneña* (Olloki) ere badira. Bistan denez, kokapenari *-rena* atzizkia eransten zaie.
- Tartapea** (Urda 1677) eta (Larttapea 1644) bigarren zatiak *-pe* atzizkia du, azpian adierazten duena. Lehenengo zatia ilunagoa da: ‘tarta’ da Azkue-ren arabera: ‘árbol joven’ (BN), Larrasoñan *Parlapea* dermioa dago, erdal *parral-* + *pe*-tik eratorria.

2.3. Etxeek betetzen duten funtzioa

Oikonimo hauetan etxeak betetzen duen funtzioa agertzen da. Etxe haue-tako batzuk tabernak ziren, beste batzuk eskolak; denek erakusten dute zer-tarako ziren etxe horiek. Hona zerrendaturik:

Abadia, *Apeztegie* (Lin, Mez, Larraingoa, Irag), *Baltegie* (Ard), *Bentaberri* (Biz), *Beitikoetxea* (Errea), *Erlereña* (Ilur), *Ermitaldea* (Eu), *Eskola* (Lin), *Ordenakoa* (Antxor, Zil), *Ostatukoa* (Loi, Larraingoa), *Tabernazarrea* (Ilur), *Txokoreña* (Errea), *Zokoreña* (Olloki).

Apeztegi (Lin, Mez, Larraingoa, Irag). Nahiz grafia erromantzearekin agertzen zen, izen honekin apezaren etxeari esaten zitzaion. Esteribarko Sarasibarren *Apezarena* dugu, eta Ardaitzen eta beste hainbat herritan *Abadia* aurkitu dugu.

Bentaberri (Biz). Herriaren sarreran zegoen tabernari esaten zitzaion, gaur egun “Posada nueva” esaten zaio.

Ermitaldea (Eu). Ermitaren ondoan dagoena, argi dago honen esanahia.

Ordenakoa dugu Antxorizen, *Ordена* oikonimoek erreferentzia egiten diote *Orden* erdal hitzari, Zilbetin, *Ordена* da monastegi zahar bat, Orreagako elizaren agindupean zegoena.

Ostatukoa (Loi). Argi dago honen esanahia. Bistan denez, *-koa* atzizkiaz la-gundurik agertzen da.

Txokorena (Errea) eta **Zokorena** (Oloki), zokoan dauden etxeak dira. Egia esan, gero benta famatua izan zen Ollokiko hau, Uhartre herritik ateratzean kokatzen zena. Bistan denez, toki-izenari *-rena* atzizkia eransten zaio.

3. TOPONIMO NAGUSIAK ETA JENTILIZIOAK

3.1. Jabearren jatorria adierazten dutenak

Etxe-izen hauek toponimo bat dute oinarrian. Etxeko jabeari izen honekin deituko zioten hangoa zela seinatzeko. Jentilizioen artean baditugu *-rena* edo antzekoa dutenak, eta ez dutenak. Toponimo bat pertsona izen bihurtzea ez da harrigarria eta ez bakarrik euskaldunen munduan, beste kultura batzuetan ere horrelaxe gertatu da. Lalienak (1996: 153) “mudejarren” antroponimia aztertzean hauxe dio: “Así, es difícil saber en ocasiones si un topónimo forma parte o no de la designación del individuo”.

Zerrenda honetan *-rena* ez dutenak emanen ditugu:

Akotain (Biz), *Bentarra* (Mez), *Indiano* (Eu), *Lexaka* (Biz), *Mezkiriz* (Sarasibar), *Monyolos* (Mez), *Xauta* (Ai), *Xarako* (Ai), *Laboakoa* (Erro).

Batzuek iparraldeko herriekin izandako harremana adierazten dute, adib. *Monyolosena*, Baxenafarroako herria *Mongelus* da. Era berean, *Zibur* etxea dugu Aurizberrin, gaurko *Ziboure* iparraldeko herritik datorrena eta *Zuncarrene-coa* etxe-izena dugu Saigotsen, eta baita *Orzaokoa* ere, azken oikonimo honek erreferentzia egiten dio Lintzoaingo bentari. Sarasibarren *Misquirichena* dugu, gero *Mezkiriz* bilakatu dena. Halaber, *Francesena* dugu 1677. urtean Zuriainen.

Akotain (Biz), Acotain 1726. Erdotzain herriko toki-izena da, baserri bat etxaldearekin. Gaur egun Bizkarreteko etxe zaharrenetariko bat da.

Bentarra (Mez), Mezkirizko etxe honen jabea *Benta* baten nagusia zen eta hortik bere izena. Aurretik *Urruticoa*, *Urrutiarena* zen, jabearren abizenen oinarritua, Juan Fermin de Urrutia (1781).

Beretx gaurko Aurizberriko etxe hau *Beraiz* bezala dokumentatzen da XVII. mendean eta gero *Beraizenea*, *Beretxenea*. Izen hau *Beraiz* jentiliziotik datorke, Oلابarko herriaren izena.

Indiano (Eu), Amerikarekin izandako harremana adierazten dute oikonimo hauek Horrela, *Indiano* dugu Eugin.

Lusarrekoa (Ai), Lusarreta Artzibarko herritik dator ziurrenik sinkopa bat jasan ondoren. *Pelegrin de Lusarreta* dokumentatzen da 1412. urtetik aurrera (ik. Mitxelena 1973: 123).

Monyolos (Mez) Mezkirizko etxe hau *Mondolosena/Monyolos* da 1704. urtean eta *Mongelosena* da 1644. urtean. *Monyelus* Baxenafarroako herria da. Horrela agertzen da Yanguas y Mirandaren hiztegian: “Monjelos: pueblo de la tierra de Cisa en la Navarra francesa. Don Juan II decía: *Monjelos es quemado et muerto las gentes*. Se incendió por los años 1345”.

Zarako (Ai), 1644. urtean *Çareco* idazten da, *Zare* herrikoei esango zitzaien, Zangotza ondoko herrikoa adierazten du.

Kasu bakar batean *-ko* eransten zaie, esaterako *Xarako* dugu Aintzioan edo *Laboakoa* Erron. *Laboa* zen Urrotz ondoko baserria.

3.2. Jentilizioak

Atal honetan, aurrekoan bezala, hurbileko herrien izenak adierazten dira. Kasu hauetan herriaren izenari *-rena* edo berorren aldakiak eransten zaizkio. Etxe-izenak egiteko modu hau ohikoa da, eta argi adierazten du *-rena* atzizkiaz lagundurik agertzen direnak deiturak direla. Garraldako etxe-izen batean ere *Nagoreina* aurkitu dugu.

Hona hemen oikonimo batzuk biztanlearen jatorria adierazten dutenak. Hauetako gehienak *-rena*, *-ena* atzizkiaz lagundurik agertzen dira.

Aragorena (Eu), *Artetarena* 1677 (Larra), *Artaizena* (Erro), *Barasoainena* (Erro), *Baztanena* (Ilurd), *Berrueta*, *Berrotenea* (Auz) *Berroeta* da Baztango herria, *Errorena* (Larrasoaña), *Galdurazena* (Ilarratz), *Usechirena* (Inbul), *Frantserena* (Urdaitz), *Idocirena* (Ilurd. 1677), *Inbuluzketarena* (Idoi), *Irozena* (Ilur), *Lacaberena* (Ar), *Labionerena* (Larra), *Navarlacena* (Larra), *Roncalena* (Urdaitz), *Saigorena* (Inbul), Saigots Esteribarko herria da, *Usochena* (Ilurd), *Usoz* da Artzibarko herria, *Xubiri(nea)* (Auz), *Zaldaitzenia* (Irag), *Ziburnea* (Auz), *Xalbana* (Ard).

Oikonimo multzo honetan argi agertzen da nondik datozen hemengo biztanleak. Hauetako anitz hurbileko ibar edota herrietakoak dira, esaterako, badira Esteribarko herri hauetakoak: *Ilarraz*, *Zalba*, *Zaldaitz*, *Xubiri*, *Iroz*, *Irure*, baita Ultzamakoak *Arraiçarena* (Urtasun) eta Goñibarkoak ere: *Artetarena* (Larra).

Urrutiagokoak ere badira: *Lexaka* (Biz), *Xarako* (Ai) *Zare* da *Zangotza* ondoko herrikoa (Sada de Sanguesa) edota *Xauta* (Ai) (< Saragueta, Artzibar). Esteribarren ere badira Erroibarko herrietako etxeak: *Ardaizena* (Larra), *Cilbetirena* (Ilur). Honen bidez argi agertzen da zein hartu-eman egoten zen herri hauetako jendearen artean.

Zenbaitetan argi ikusten da XVII. mendeko dokumentuetan “*vive Pedro de Arrieta, en la casa llamada Arrietarena*”, jabearen herriak ematen diola izena etxeari, eta hori, azken batean abizen bihurtuko dela.

Oraingo Euskal Herria baino zabalagoa den eremu batean gauza bera aurkitzen da. Grosclaudek (1992) dioenez, gaskoinezko deituren ia erdiak etxe-izenak dira. Gainera, Omaechevarriak dioenez (cf. Mitxelena 1973: 23):

...*aún en el siglo XVI los apellidos no tenían la fijeza que actualmente poseen, sino que “el apellido toponímico sólo significaba que el individuo portador del mismo era natural o vecino del solar o lugar así llamado”.*

Aurrean esan bezala, XVI. mendera arte, jaiotako herriak ematen zion izena jende gehienari, horrenbestez, hortik zetozen jende arruntaren abizen gehienak. Beste iturri batzuk hauek ziren: a) antroponimoetatik eratortzea: *Garcés*, *Martínez*, *Velázquez*, b) gaur egun abizen bezala erabiltzen diren antroponimoetatik eratortzea: *García*, *Martín*, *Belasko* c) goitizen, lanbide eta gisa horietatik eratortzea: *Arotza*, *Eskutxuri* eta etxeari edota jaiotako herriari erreferentzia egiten ziotenetatik eratortzea: *Lusarreta*, *Martinena*, *Belaskoain*.

Hona hemen etxe-izen batzuk jatorri hori dutenak:

- Aragonena** eta **Aragorena** agertzen dira Eugin 1644. eta 1677. urtean.
- Artaizena** (Erro), Artaiz Untziti ibarreko herria da, eta hortik datorkio izena ziurraski.
- Aurizperrirena**, 1677. urtean dokumentatzen da. Deigarria da nola agertzen den *Aurizberri* jentilizioa orain, baina apeamendua egiterakoan herriaren izena “Espinal” da, alegia, izenburu gisa agertzen dena.
- Baztanena** (1644) eta *Bastanena* (1677) dugu Ilurdotzen, Baztango jabea izan zuten.
- Cilbetirena** (1644) Ilurdotz. Argi dago etxe honen jatorria, Zilbeti herrikoa, alegia.
- Ibisquetarena** Esteribarren *Ybisquetarena* agertzen da (Idoi 1672) eta *Iblusquetarena* 1644. urtean. Aipatzekoa da forma hau ez dela agertzen XX. mende arte, Belaskok dioenez (1966: 233).
- Idoieta** (Urda) Urdaitzeko etxe honek zor dio izena *Idoieta* herriari, Osteritzetik goiti dagoen herrixka hustuari, hortik dator izena.
- Irozena**. Kontuan har bedi *Irotxena* oikonimoa ere badagoela Garraldan (ik. Xamar 1998: 79).
- Labionerena** (Larra), gaur Zubillaga etxea da. *Labio*, *Labiano* herrikoa, itxura denez.
- Yrurena** (Eugi 1644) *Irure* Esteribarko herrikoa.
- Mizquiriena**, **Misquiritxena** dugu Sarasibarren, Erroibarko Mezkitz herriari egiten dio erreferentzia.
- Navarlacena** (Larra). *Nabarlaz* da Luzaideko etxe bat, Gaiñdola auzoan kokatua. Bestalde Etxalarreko leku bat da, Zugarramurdi eta Sararen artean dagoena. Abizena ere bada, jakina.
- Çalbarena** (Ard 1644), **Salbarena** (1726) gaur *Xalbana*, *Zalba* ondoko herriatik eratorritako izena da, gero bustidurarekin ahoskatua, dokumentazioak argiki frogatzen duenez.
- Xubirinea**, **Xubiri** (Auz), jabearen jatorriari egiten dio erreferentzia, *Cubirirena* bezala agertzen da 1644. urtean eta Aezkoan ere antzekoak ditugu, Garraldan *Jubiri* dugu eta Garaioan *Xubiena*.
- Xudunena** (Larrasoña 1644). Bistan denez, juduaren etxea da. Argi adierazten du honek juduak ere bazirela.
- Zaldaitzenia** (Irag) Zaldaitz herritik etorri zen nagusia eta hortik izena.
- Zunzarrena** (Sar) Zunzarren herria Erroibar ondoan dago.

4. ONDORIOAK

Bi ibar hauetako etxe-izen hauek aztertu ondoren, ondorio batzuk ateratzeko tenorea heldu da.

4.1. Lehenik aipatu behar dugu bi hitz emakumeen izenen erabilpenari buruz

Emakumeen eta gizonezkoen izenak erabiltzearen maiztasunez esan behar da emakumeen izenak oso gutxitan agertzen direla. Hau ez da harrigarria, oraindik ere gaur egungo gizartean –gauzak anitz aldatu badira ere– telefono zerrendan “listinean”, esaterako, askoz gutxiago agertzen dira idatzirik eta jabe bezala ez dira kasik agertzen, alegia, emakume asko ez daude telefo-

no zerrendan errejistraturik ere, haien ordezen senarrak edo gurasoak agertzen dira, honenbestez emakumeak ikustezin bihurtzen dira.

Bretainan Erdi Aroan egindako ikerketa batean ere, emakumeen izenak aipatzen dira hiru aldiz gutxiago gizonezkoak baino eta agertzen direnean, gizon bati erreferentzia egiten diote: senarrari edota aitari. Besteetan ez dira aipatzen ere Chedevillek dioskunez:

Il est rare que les femmes apparaissent seules dans les textes. En sont prises en compte dont le nom est cité: il arrive en effet qu'il en soit pas même mentionné. D'abord seulement citées ou témoins, elles deviennent plus souvent donatrices, associées ou bien en font que donner leur accord (ik. Chedeville 1992: 38, 39).

Beste batzuetan, emakumearen izena agertzen denean, eranskinaren batekin lagundurik agertzen da. Antzera gertatzen da urrutiago ere, Frantziako Languedocn egindako ikerketa batean emakumea aipatzeko izen bereziari halako gehitze bat jartzen zaio (ik. Bourin 1992: 8): “l'usage s'introduisait d'ajouter une désignation complémentaire au nom unique”. Hona emakumeak izendatzeko modua nolako tipologia duen Languedocn:

Izena
Izena + izendatze osagarria
Izena + abizena
Izen konposatua

Esan bezala, gure ibarrotan gutxi dira emaztekien izen bereziak duten oikonimoak. Hona aurkiturikoak: *Mari Antoninea* (Auz), *Atanaxena* (Lin), *Xixilena* (Mez), *Agadena* (Ol), *Agaderena* (Mez), *Androtenia* < *Andrebetena* (Mez)?, *Maitena* (Inbu), *Catalinena* (Mez), *Moñana* (Mez), *Gurbindorena* (Inbu). Hauetaz gain, badira izengoitiak eta abizenak, emakume zein gizonezkoen erreferentzia egiten ahal dietenak, baina, gehienetan gizona dute erreferentzi gunea, gure ikuspuntuaren arabera, *Moñana* (Mez) kasuan izan ezik.

Honez gain, emakumea agertzen denean, “viuda de” agertzen da, eta honi eransten zaio maiz askotan “Que es pobre de solemnidad”. Bretainako antroponimoen egindako ikerketan antzera gertatzen da:

elles apparaissent d'ailleurs sous cette forme lorsqu'elles sont l'auteur ou l'associée de l'auteur d'une donation. Les formes uxor Y ou relicta Y sont moitié moins nombreuses: une veuve en peut léguer que ce qu'elle tient de ses parents (Chedeville 1992 : 39).

Dena den, agerturiko izen gutxi horietan ez da bereziki hipokoristikoen erabilpen handiagoa ikusten emakumeen kasuetan. Bourinek (1992: 4) dioenez, Frantzian egindako ikerketa batean suposatzen da txikigarrien erabilpena handiagoa dela emakumeen izenetan:

Il est difficile de déterminer si l'hypocoriste est un nom stable, toujours utilisé pour désigner la même femme ou fill, ou s'il s'agit d'usage variable avec les humeurs ou les âges de la vie.

Bestalde, lanbidea erakusten dituzten oikonimoetan ere, gizonezkoen lanbideak nagusitzen dira: *Danbolina* (Auz), *Apeza*, *Harakina* (Mez), *Barberoa*, *Argina*, *Ilegilea* > *Llallania* (Mez), *Maistroa*, *Zelataria* > *Zata* (Auz), *Sas-*

kiegilea, Zurgina, Arotza, Alkatea, hauetaz gain, erdaraz aipaturiko lanbideak agertzen dira: *Xerrajero, Xapatero, Tejedor, Esportero, Cerero*.

Bukatzeko, gure lanaren estatistika modukoa egiteagatik, esan dezakegu zortzi aldiz besterik ez direla agertzen euskal emakume izenak.

4.2. Gizonezkoen antroponimoen erabilerari dagokionez, datu estadistikoak egin ez badugu ere, aipatu behar da izenak anitzetan errepikatzen direla, alegia, *Joanes, Miguel, Martin, Peru* dira ohikoenak eta hauek behin eta berriro agertzen zaizkigu. *Juanen* eratorriak eta izen konposatuak erruz agertzen dira: *Ganix, Juantxe, Manex, Juanix, Juan Pedro, Juandraz, Juan Bernardo, Juan Simon*.

Hari honi jarraikiz, homonimia kopurua nahiko altua dela esan dezakegu. Egoera hau ez da harrigarria, beste kultura batzuetan ere antzeko gauzak gertatzen dira, Ebro ibarrean egindako ikerketa batean, mudejarren izenak aztertzerakoan (ik. Laliena 1996: 157) hauxe agertzen da: “En el valle del Ebro, con sólo tres nombres se sobrepasa el 50% de las designaciones”.

Gure eremuan, esaterako *Gillontrorena* agertzen da 1726. urtean Esnotsen eta baita Erron ere. Era berean, *Mosorena, Sastrerena, Maixternia, Exkernia* (Ol, Lin) anitzetan errepikatzen diren oikonimoak dira.

Maiz agertzen den beste izenak dira *Bernart, Beñat, Benarterena* eta antzekoak eta baita *Ernaut* eta *Eñautena* ere. Frantzian izen hauek nagusi dira, X. mendetik aurrera, Bourinek dioenez (1992: 188).

4.3. Hirugarrenik, ohar pare bat egin nahi dugu hizkuntzaren erabilpenari buruz. Deigarria da nola herrien izenak agertzen direnean “Apeamendua” egiterakoan beti erdal izena agertzen den. Honek adierazten du notarioen joera linguisikoa, jakina, eskribau hauek beti erdal izenaren alde markutzen ziren, nahiz eta hori ez zen jendeak modu arruntean erabiltzen zena.

Esaterako *Viscarret* agertzen da beti goiko aldean, izenburu gisa, herrien zerrenda egiten denean, nahiz euskaldunek beti herri honi *Gerein* (< *Gerendiain*) izendatu dioten. Gaur egun izendapen bikoitza du: *Bizkarretal/Gerendiain*. Hala ere, herri honetan, 1644. urtean *Guerendaynena* (Biz) etxe-izena agertzen da idatzirik, honek adierazten du izen hori bizirik zegoela baina eskribauak *Viscarret* erabiltzen zuela, alegia, gatzelaniaz mintzatzerakoan esaten zena. Bistan denez, oikonimoak aldatzea zailagoa da, jendearen hizketan agertzen baita txertaturik, herriaren izena, ordea, alda daiteke konszienteki.

Beste hainbeste gertatzen da *Aurizberri* izenarekin. Jakina denez, herri hau erdaraz *Espinal* da, eta hau da Apeamenduan agertzen den izen bakarra. Baina, Larrasoñan 1677. urtean *Aurizperrirena* agertzen da etxe-izen bati izena emanez (“cuyo dueño es Pedro de Esain”). Honenbestez, izen ofizialetatik kanpo jende arruntak izendapen hauek erabiltzen zituen. Era berean, Mezkitzen erdaraz agertzen da *Casa Tejedor* 1644. urtean, eta 1726. urtean *Lellanecoa*, gaur *Llallania*.

Antzera gertatzen da hauekin ere: 1644. urtean *Abbadia* agertzen da idatzirik apezaren etxea adierazteko, eta ia ehun urte geroago, ordea, *Apezteguia* dugu etxe bera seinalatzeko. Beraz, eskribauaren eskuaren arabera, erdaraz edo euskaraz agertzen zen. Notarioen garrantzia ikusten da adibide honetan ere. Esaterako, Erroibarko 23. paper-sortan notarioa herriz herri joaten de-

nean Apeamendua egitera ez ditu transkribatzen etxeko izen bereziak. Oikonomoen ordez hauxe idazten du:

Casa de Joanes de Narbaiz, vive él mismo
Martín de Olóndriz, vive él mismo

Honek adierazten du eskribu honen ardura eskasa etxe-izenak islatzeko. 1644. agertzen den beste notarioak, ordea, jartzen du “llamada *Catalinena*” lehenengo etxe hau izendatzerakoan. Dena den, apeamendua egitera joaten direnak 1644. urtean eta hiru urte geroago lau pertsona dira eta lauek sinatzen dute, hauetatik hiru berdinak dira. Aldatzen duen bakarra *Miguel de Balança* da 1644. urtean eta 1647. D. Juan de Garibay, baina aipagarria da oikonomo euskaldun gutxiago agertzen direla bigarreanean lehenengoan baino.

Notarioen poterea ere argi ikusten da beste kasuotan, esaterako, XI. mendean ikusten dugu eskribau bretoi bat ukatzen dela izen bat idaztera baldarregia iruditzen zitzaiolako:

Certains rédacteurs d'actes paraissent même ignorer le breton ou affectent de le mépriser comme une langue barbare: dès la fin XI siècle à Quimperlé un scribe renonce à inscrire le nom de nombreux témoins à cause de l'excessive rusticité (rustica imbecillitas, Cartulaire, n° 41) de ces noms... (Cf. Chedeville 1992: 11).

Iltze berean jotzen du Lalienak, mudejarren antroponimia ikertzerakoan, ikertzaile honek argi azpimarratzen du notarioaren eta jende arruntaren artean dagoen urruntasuna:

...la forma en que el escribano transcribe esas designaciones, y la que se para los lenguajes utilizados en una y otra dimensión –la lengua romance correspondiente y el latín–, se suma otra, específica para los mudéjares, la diferencia étnica, antroponímica y, eventualmente, lingüística que separa al notario de los musulmanes que los nombres escribe (Laliena 1996: 146).

4.4. Beste alor batera joango gara oraingoan, etxe-izenak aztertzerakoan, ikus dezakegu argiki nongoa zen inguruko herrietako jendea. Alegia hurbilketa soziologiko modukoa egin daiteke, alegia, nondik nora mugitzen zen jendea, alegia, nongoa zen ibar hauetako jendea. Horrela ikusten dugu, bereziki, Artzibarkoak direla hauetako asko: *Lusarreta, Imizkotz, Arrieta, Lacabe* eta Erroibarko beste herrietakoak: *Ardaitz, Erro*, edo Esteribarkoak: *Saigots, Usetxi*.

Horrela, batzuetan argi baino argiago agertzen da hau: *Martin de Arrieta* llamada *Arrietarena*, Esnotsen. Badira inguruko herrietakoak ere, esaterako Baztangoak: *Elizondo, Maiakoak* eta azkenik Iruñea inguruko ibar eta herrietakoak ere: *Barasoain, Aroztegi, Baraztain, Zunzarren, Burguete, Labiano*.

Azpimarratzekoa da Aezkoako herrien izenik aurkitu ez izana gure haranetako etxeen artean; gaur egun Aezkoako herriekin dagoen harremana handi xamarra da, komunikabideak direla eta, baina, lehen gauzak ez dakigu horrela ote ziren, Caminok ere dio ez duela aurkitzen lekukotasunik horrela zi-rela esateko. Oro har, esan daiteke Erroibarko eta Esteribarko etxe-izen gehienak jabearen izenaren arabera ezarriak direla, eta ez dutela parekotasun handirik zaharragoak iduri duten Aezkoakoekin. Honetaz jakiteko (ik. Camino 1997: 107-109) eta Etxegoien (1998).

4.5. Jakina denez, toponimian aldaketa asko izaten dute izenek urteak eta mendeak pasa ahala. Horrela, apokope asko agertzen dira, beste desitxuraketaz gain. Hona hauetako nabarmenak diren batzuk:

Juandraz < *Juan de Errazurena*; *Xaxkil* < *Saskiegilearena*; *Xolda* < *Soldadorena*; *Lusar* < *Lusarretakoa*.

Sinkopak eta laburtzapenak ere nabarmenak dira, hona hemen:

Tabernazarra > *Tanazarrea*; *Arozteguizarra* > *Azarrea*; *Zelatariarena* > *Zata*.

Eta azkenik aipatuko dugu dialektologian oso ezaguna den gauza bat, eta hau da hain zuzen ere, errepidetik hurbil dagoen herrietan oikonimia erdal-dunagoa dela barruko herriena baino. Horrela, Larrasoañan eta Zubirin; Castastroan ez da izen euskaldun bakar bat ere agertzen, nahiz guk galdetegi bidez lortu ditugun.

Ibar hauetan baziren lanbide batzuk etxe-izenetatik erator ditzakegunak. Honek, dudarik gabe, bizitza eta jende gehiago zegoela herri hauetan adierazten du. Esaterako, bazen maistrua herri guztietan, txikienetan ere, esaterako, Loizun, eta argina ere bai. Bestalde, Arotza eta “Cerero” zeuden Erron eta harakina, txokolateroa, esporteroa Mezkitzen. Gaur lanbide hauek desagertu dira.

Bestalde, inguruko herrietatik etorritako jendea inguratzen zen herri hauetara. Horrela, mugaz bestaldeko jendea bazegoen, “en el molino farinero de Olondriz, vive Juan de Gascón (francés)”. Honez gain, muga ondoan egoteak frantses itxura eman die hainbat oikonimori, edo atzizkiak, behintzat gisa honetakoak dira: *Sançetena* edo *Sanquetena* eta *Michetena* 1644. urtean Olondrizen eta Esnotzen. *Jaquetena* ere agertzen da Olondritzen eta *Michelcorena* Loizun 1644. urtean, eta *Pierreño* (Larra), *Pierren borda* (Zil).

Bukatzeko, lan honetan oikonimo guztien etimologian arakutzen saiatu gara, baina helburu hau ezin izan da beti erdietsi. Hau dela eta, esanahi iluneko etxe izen batzuk gelditu zaizkigu, behintzat, haien etimologia argiki ezagutzen ez duguna eta modu ilunean gelditu dena. Hona batzuk: *Txalka* (Saig), *Txernenea* (Errea), *Zauzin* (Usetxi). Besteetan, zalantza izan dugu eta horrela adierazi dugu hainbat hipotesi etimologiko aurreratzen saiatu garelarik, baina nahiago izan dugu bide hori, anitzetan arriskugarri xamarra izan den arren.

BIBLIOGRAFIA

- APEZETXEA, P., 1985, “Etxalarko etxe eta baserrien izenak (1623-1983)”, *FLV*, 45, 183-203.
- AZKUE, R. M., 1969, *Diccionario vasco-español-francés*, Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.
- BARANDIARAN, J. M., 1926, “Pueblo de Aurizperri (Espinal)”, *AEF* VI, 1-18.
- BECK P., 1992, “Anthroponymie et Désignation des femmes en Bourgogne au Moyen-Age”, in *Genèse médiévale de L’anthroponymie moderne, Études D’Anthroponymie Médiévale, III et IV Rencontres- Azay-le-Ferron 1989-1990*, Publication de l’Université de Tours, tome 2, 89-150.
- BELASKO, M., 1996, *Diccionario etimológico de los nombres de los pueblos, villas y ciudades*, Pamiela argitaletxea.
- BIDEGAIN, CH., 1999, *Izendegia, Diccionario de nombres vascos*, Elkarlanean, Donostia.
- BOURIN, M., 1992, “Les difficultés d’une étude de la désignation des femmes”, in *Genèse médiévale de L’anthroponymie moderne, Études D’Anthroponymie Médiévale, III et IV Rencontres- Azay-le-Ferron 1989-1990*, Publication de l’Université de Tours, tome 2, 1-8.

- 1992, “Désignation et anthroponymie des femmes en Bas-Languedoc: l'exemple du cartulaire du chapitre d'Agde”, in *Études D'Anthroponymie Médiévale, III et IV Rencontres-Azay-le-Ferron 1989-1990*, Publication de l'Université de Tours, tome 2, 151-187.
- BUESA, T., 1989, “Antropónimos afectivos con palatal /ʔ/ en Aragón”, in *Homenaje a Alonso Zamora Vicente II*, Castalia, 39-52.
- CAMINO, Y., 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, Hezkuntza eta Kultura Departamentua.
- CHEDEVILLE, A., 1992, “Lanthroponymie bretonne”, in *Genèse médiévale de Lanthroponymie moderne, Études D'Anthroponymie Médiévale, III et IV Rencontres, Azay-le-Ferron 1989-1990*, Publication de l'Université de Tours, tome 1, 9-43.
- ETXEGOIEN, J. C., (Xamar)1998; 1898, *Garralda*, Pablo Mandazen fundazioa, Pamiela argitaletxea.
- GONZÁLEZ OLLÉ, F., 1971, “Antropónimos hipocorísticos navarros de mediados del siglo XIV”, in *Homenaje a D. José Esteban Uranga*, 485-491, Iruñea, Aranzadi argitaletxea.
- GORROTXATEGI, M., 1993, “Petri, Pedro, Peru eta Pello Nafarroan, XVIII. mendean”, *Euskera*, 1993-2, 319-322.
- GORROTXATEGI, M. & SALABERRI, P., 2000, *Euskal izendegia*, Diccionario de nombres de pila, Euskaltzaindia, Eusko Jaurlaritza.
- GROSCLAUDE, M., 1992, *Dictionnaire Etymologique des noms de famille gascons*, Editions Marmimpouey-Pau.
- IBARRA, O., 1991, “Mezkirizko toponimiaz”, *FLV*, 58, 301-357.
- , 1997, *Valle de Erro: historia, costumbres y lengua*, Gráficas Lizarra.
- , 2000, *Erroibarko eta Esteribarko hizkera*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea.
- IÑIGO, A., 2000, “Nombres de oficios en la oiconimia navarra”, *FLV*, 83, 139-143.
- IRIGOIEN, A., 1994, *Pertsona-izenak euskaraz nola eman (eta exotoponymiaz eraskin bat)*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- LALIENA, C., 1996, “La antroponimia de los mudéjares: resistencia y aculturación de una minoría étnico-religiosa”, in *Lanthroponymie. Document de L'histoire sociale des mondes méditerranéens médiévaux*, École Française de Rome.
- MITXELENA, L., 1973, *Apellidos vascos*, Txertoa argit., Donostia.
- MUGIKA, P., 1981, *Diccionario vasco-castellano*, S. I. Bilbao.
- ORPUSTAN, J. B., 1990, *Toponymie Basque*, Universidad de Burdeos.
- SALABERRI ZARATIEGI, P., 1996, “Nafarroako zenbait izengoitiren inguruan”, *Huarte de San Juan, Lingüística y Literatura*, 1, Universidad Pública de Navarra, Pamplona.
- SAN MARTIN, J., 1993, “Ofizio eta titulu nortasuna Hondarribiko etxe-izenetan”, *Euskera*, 38, Euskaltzaindia, Bilbo, 1993, 2, 319-321.
- (VN). IRIBARREN, J. M., 1984, *Vocabulario navarro*, Pamplona 1984.

Laburdurak

<i>Esteribar</i>	<i>Erroibar:</i>
Agorreta (Ag)	Aintztoa (Ain)
Akerreta (Aker)	Aurizberri (Auz)
Antxoritz (Antx)	Ardaiz (Ard)
Eugi (Eu)	Bizkarret / Gerendiain (Biz, Ger)
Ezkirotz (Ezkir)	Esnots (Esn)
Gendulain (Gend)	Gurbizar (Gur)
Ilarratz (Ilar)	Lintzoain (Lin)
Ilurdotz (Ilur)	Loizu (Loi)
Inbuluzketa (Inbu)	Mezkiritz (Mez)
Iragi (Irag)	Olondritz (Ol)
Irure (Iru)	Zilbeti (Zil)
Larrasoaña (Larra)	
Leranotz (Ler)	
Oloki (Olo)	

Osteritz (Oster)
 Saigots (Saig)
 Sarasibar (Sar)
 Setuain (Set)
 Urdaitz (Urd)
 Urtasun (Urtas)
 Usetxi (Us)
 Zabaldika (Zabal)
 Zubiri (Zub)
 Zuriain (Zur)

LABURPENA

Bi artikulu hauen helburua da Esteribar eta Erroibarko etxe-izenen inguruan azterketa bat burutzea. Erroibarren honako urteak hartu dira oinarriztat: 1644, 1726 eta 2001 eta urte hauetan zehar jasandako bilakabidea aztertu da. Metodologia berbera jarraitu da Esteribarren, baina urteak hauek izan dira: 1644, 1677 eta gaurkoak. Artikulu honetan oikonimoen etimologia aztertzen da, eta bide batez hauen sailkapena burutzen da, kontuan izanik zertan dauden oinarriturik etxe-izen hauek: toponimoetan, antroponimoetan edota jentilizioetan. Lan honek bi zati ditu, batean toponimoen zerrendak eta beraien bilakabidea ematen da eta bigarrean, hauen sailkapena eta etimologia dira aztergai.

RESUMEN

El objetivo de este artículo es analizar la evolución de los nombres vascos de las casas de los valles de Esteribar y Erro en Navarra, en los que euskara ha sufrido una profunda erosión. En el valle de Erro se han tomado como base los topónimos de los años 1644, 1726 y 2001 y se ha analizado la evolución de los mismos durante estos años. El mismo método se ha seguido en el valle de Esteribar, aunque las fechas elegidas han sido 1644, 1677 y las actuales. En este artículo proponemos una clasificación de los oicónimos teniendo en cuenta los nombres de casas que están basados en topónimos, antropónimos, gentilicios, etc. En cada uno de los apartados tratamos de desvelar la etimología de dichos topónimos. El trabajo tiene dos partes, en la primera se presenta la lista de nombres de casas, donde se percibe la evolución que han sufrido dichos nombres y en el siguiente se lleva a cabo el análisis etimológico de los mismos.

RÉSUMÉ

L'objectif de cet article est d'analyser l'évolution des noms basques des maisons des vallées d'Esteribar et d'Erro en Navarre, où l'euskara a souffert une profonde érosion. Dans la vallée d'Erro, on a pris comme base les toponymes des années 1644, 1726 et 2001 et on a analysé leur évolution au cours de ces années. La même méthode a été suivie dans la vallée d'Esteribar, bien que les dates choisies aient été 1644, 1677 et les années actuelles. Nous proposons dans cet article une classification d'oronymes en tenant compte des noms de maisons qui se basent sur des toponymes, anthroponymes, lignées, etc. Nous essayons, dans chacun des paragraphes, de dévoiler l'étymologie desdits toponymes. Le travail est fait en deux parties: la première présente la liste des noms de maisons, où l'on perçoit l'évolution que lesdits noms ont soufferte, et la seconde présente leur analyse étymologique.

ABSTRACT

The aim of this article is to analyse the evolution of Basque names of the houses in the valleys of Erro and Esteribar (Nafarroa), areas where the Basque language has suffered a deep erosion. With the “oiconimos” of the years 1644, 1726 and 2001, we have tried to make a comparative study of the evolution of such house-names during this time. We have also tried to give the etymology of those names, classifying them into different groups: those based on anthroponyms, toponyms and patronymics, and those which describe the characteristics of the houses, etc. Finally we give the list of the villages of each valley and the names of the houses from that period.